



**EUSKADIREN
NAZIOARTEKOTZEAREN
ERRADIOGRAFIA 2022**

EUSKADI
BASQUE COUNTRY





**EUSKADIREN
NAZIOARTEKOTZEAREN
ERRADIOGRAFIA 2022**

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

AURKIBIDEA

0	SARRERA	6
1	KONTZEPTU-ESPARRUA	8
2	HELBURUAK ETA METODOLOGIA	10
	2.1. Proiektuaren helburu orokorra	11
	2.2. Eguneratze honen helburu espezifikoak	11
	2.3. Nazioartekotzekoaren Hirugarren Erradiografia egiteko metodologia eta prozesua	12
	2.4. III. Erradiografia hau interpretatzeko ohar metodologikoak	13
	2.4.1 Ohar metodologikoa: I. Erradiografiako (2016) eta II. Erradiografiako (2019) datuen inguruko ñabardurak	13
	2.4.2 Datuak alderatzeko ohar metodologikoa: barne-produktu gordina	14
3	ADIERAZLE-SISTEMA	16
	3.1. Testuinguru globalaren adierazleak: zer ordezkutzen du Euskadik munduan	17
	3.2. Presentzia globalaren adierazleak: zer ordezkutzen du eta zer ekarpen egiten du Euskadik gaur egun munduan	22
	3.2.1. I. dimentsioa: instituzionala	22
	3.2.2. II. dimentsioa: ekonomia eta industria	25
	3.2.3. III. dimentsioa: kultura eta euskara	29
	3.2.4. IV. dimentsioa: turismoa	32
	3.2.5. V. dimentsioa: garraioa	34
	3.2.6. VI. dimentsioa: zientzia eta teknologia	35
	3.2.7. VII. dimentsioa: hezkuntza	37
	3.2.8. VIII. dimentsioa: ingurumena	38
	3.2.9. IX. dimentsioa: gizartea	40
	3.2.10. X dimentsioa: gobernua, ekonomia eta gizarte digitala	43
4	EUSKADIREN PRESENTZIA GLOBALAREN ADIERAZLE MAPAREN BILAKAERAK IZANIKO LABURPENA: Lehen, bigarren eta hirugarren erradiografia	46
5	EUSKADIREN 2022KO PRESENTZIA GLOBALAREN ADIERAZLE MAPAREN LABURPENA: Hirugarren erradiografiaren munduko konparaketa	56

SARRERA



Eusko Jaurlaritzaren X. Legegintzaldian agerian geratu zen Euskadiren etorkizuna agertoki globallean jokatu delako. Horrenbestez, etorkizuneko lehiakortasunerako funtsezko faktorea da, herrialde-erronka gisa, **Euskadi nazioartekotzea, Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategia** (aurrerantzean, EBC 2020) dokumentuan jasota dagoen moduan.

EBC 2020k bere gobernantza-eredua eta bere jarraipen- eta ebaluazio-sistema zituen, bere agintetarekin eta kudeaketa-adierazleekin. Horiei guztiei esker, Jaurlaritzak garatutako jarduerak eta ekintzak ebaluatu ahal ziren, Legegintzaldiaren amaieran ezarritako helburu estrategikoen betetze-mailaren berri eduki ahal izateko. Alabaina, barne-kudeaketaren egikaritze-adierazleak direnez, **ez zituzten erregistratu eta islatu inguruneko aldagaietan izaniko aldaketak, nahiz eta baduten eraginik Euskadi munduko eragile global gisa posizionatzeko prozesuan.**

Horregatik, beharrezkotzat jo zen 2016an **Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Ekintzaren inpaktua neurtzeko sistema** bat diseinatzen hasia. Euskadin ez zen halako sistemarik, eta ez zuen erreferente argirik nazioartean.

Proiektu aitzindari horren emaitza izan zen **EUSKADIREN NAZIOARTEKOTZEAREN LEHEN ERRADIOGRAFIA**, zeinak deskribatzen baitzuen **zer presentzia duen Euskadik munduan eragile global gisa eta zenbateraino dagoen herrialde gisa nazioartekotuta.**

EUSKADIREN NAZIOARTEKOTZEAREN LEHEN ERRADIOGRAFIA baliagarria izan zen, orobat, **beste dokumentu bat eguneratzeko inputak jasotzeko. Hau da, Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country 2018-2020 Estrategia**, zeinak berretsi baitzituen Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotze-ikuspegia eta -konpromisoak, XI. Legealdiko Gobernu Programan definituak.

2018an estrategia eguneratu ondoren eta **EBC 2020**ren irismena zabaldu eta gero, **koherentea eta logikoa zirudien 2016an definitutako nazioartekotze-adierazleen sistema eguneratzea eta osatzea.** Horren ondorioz, **EUSKADIKO NAZIOARTEKOTZEAREN BIGARREN ERRADIOGRAFIA** egin zen 2019an. Bigarren erradiografia horrek **zabaldu egin zuen nazioartekotze-adierazleen sistema** eta adierazleok X. eta XI. Legealdien artean izaniko bilakaera ebaluatu zuen.

XII. Legegintzaldia hasi zenean, Legegintzaldian **NAZIOARTEKOTZEKO ESPARRU ESTRATEGIA – EUSKADI BASQUE COUNTRY 2025** taxutu zen, zeinak jarraipen-sistema argia eta zehatza baitzuen.

EBC 2025ek, **jarraipen ereduari buruzko seigarren kapituluan**, argi eta garbi azaltzen du Estrategiaren jarraipen-ereduak argi eta garbi azaltzen du: “EBC 2025 – Nazioartekotzeko Esparru Estrategiaren inplementazioaren jarraipenari begira, inpaktuaren eta jardueraren neurtzaileak integratzen dituen sistema misto bat proposatzen da”.

“Alde batetik, Estrategia horrek Euskadiren kanpo-errotzearen graduan duen inpaktua neurtuko da. Eta, horretarako, jarraipen- eta ebaluazio-tresna da Euskadiren Nazioartekotzearen Erradiografiaren adierazle-sistema”.

Dokumentu honek nazioartekotze-adierazleen sistema eguneratzeko prozesuan egindako lana eta lortutako emaitzak aurkezten ditu, eta hari esker lor daiteke **EUSKADIKO NAZIOARTEKOTZEAREN HIRUGARREN ERRADIOGRAFIA 2022ko datuekin**, eta ebalua daiteke, orobat, ari ote garen aurrera egiten neurketa objektiboaren bidez. “Definitzen ez dena ezin da neurtu. Neurtzen ez dena ezin da hobetu. Hobetzen ez dena, degradatu egiten da beti” (Lord Kelvin).

Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariak Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako Idazkari-tza Nagusiak gidatu du proiektu hori. Partaidetza-prozesu bat izan da oinarrian, eta beste sail batzuen eta Euskal Sektore Publikoaren laguntza izan du.

KONTZEPTU
ESPARRUA



Euskadiko Nazioartekotzearen Hirugarren Erradiografia 2016an Euskadiren Nazioartekotzearen Lehen Erradiografian definitutako adierazle-sistematik abiatzen da. Sistema hori 31 adierazlek osatzen dute: testuinguru globalari buruzko 4 adierazle, presentzia globalari buruzko beste 27, guztiak ere 9 dimentsiotan sailkatuta. Bigarren Erradiografiak, bestalde, beste 7 adierazle berri eta dimentsio berri bat txertatu zituen.

Guztira, **38 adierazle ziren, 4 testuinguru globalari buruzkoak eta 34 presentzia globala aztertze-koak, 10 dimentsiotan sailkatuta.**

Adierazleak hautatzeko prozesuak oinarri hauek izan zituen 2016an eta 2019an: eskala globalean erabili beharreko adierazle nagusien irizpide ugariko azterketa, lehendik abian diren nazioarteko posizionamenduaren ebaluazioak eta eskuragarri dauden datuak, betiere adierazle-sistemaren diseinuan aplikatutako metodologiaren arabera, aipatutako bi data horietan.

<p>1. URRATSA: ANALISIA ETA HAUTAKETA ADIERAZLEAK: IRAGAZKIAK APLIKATZEA</p>	<p>2. URRATSA: ADIERAZLEAK LEHENESTEA</p>
<p>1. Iragazkia: Posible da Euskadiri buruzko datu eguneratuak izatea? (Kalkulatzen den edo adierazlea lortzeko daturik baden kontuan hartuta).</p>	<p>1. Lehenespen-irizpidea: Posible da adierazlea eskala globalean alderatzea?</p>
<p>2. Iragazkia: Fidagarria da erabilitako informazio-iturria edo aplikatutako metodologia adierazlea osatuko duten datuak eskuratzeko?</p>	<p>2. Lehenespen-irizpidea: Zenbateraino da garrantzitsua adierazlea aztertutako gairako?</p>
<p>3. Iragazkia: Adierazleak ematen duen informazioak behar adina ordezkatzen du behatutako gaia aztertzeko?</p>	

1. grafikoa. Adierazleak hautatzeko metodologia.

HELBURUAK
ETA METODO-
LOGIA



2.1.

Proiektuaren helburu orokorra

Euskadiren egungo presentzia globala eta nazioartekoa neurtzen eta aztertzen laguntzea, eta, horretarako, oinarri dokumental enpiriko bat eta **adierazle-sistema** bat edukitzea Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanak nazioartekotzearen emaitzetan duen inpaktua neurtzeko abiapuntu gisa. Erradiografiari esker, **Eusko Jaurlaritzaren orientazio estrategikoa eta jarduna bultzatu ahal izango da**, nazioartean EUSKADI ez ezik gizartea, erakundeak eta euskal ehun sozioekonomikoa ere sendotzeko lider gisa, eta lankide dituen beste erakunde edo elkarte batzuen **jarduna ere bideratuko da**, nazioartekotzea herrialde-estrategia bihurtzeko. Hala, areagotu egingo dira euskal gizartearen ongizate-maila eta euskal ekonomiaren lehiakortasuna oro har.

2.2.


Eguneratze honen helburu espezifikoak

- Euskadik 2022an mundu globalizatuan duen **benetako posizioa neurtzeko sistema garatzen jarraitzea**, nazioartekotze-dimentsio guztiak aintzakotzat harturik.
- **2016tik 2022ra eta 2019tik 2022ra bitarteko bilakaera bistaratzea**, eta lortutako adierazleen balioak alderatzea nazioartekotzeko lehen, bigarren eta hirugarren erradiografiak egin ziren garaiko datuekin.

2.3.

Nazioartekotzekoaren Hirugarren Erradiografia egiteko metodologia eta prozesua

Grafiko honek eskematikoki aurkezten du hirugarren erradiografia egiteko prozesua.



4. Proiektuaren amaiera: ondorioak eta gomendioak

2. grafikoa. Hirugarren Nazioartekotze Erradiografia egiteko metodologia eta prozesua.

2.4.

Erradiografia hau interpretatzeko ohar metodologikoak

Oro har, III. erradiografiari dagokionez, aipatzekoa da Eustatek asko aurreratu duela estatistika-sistema garatzeko bidean. Horri esker, erradiografia errazago eguneratu daiteke adierazle batzuei dagokienez. Baina, bestalde, zaildu egiten da 2022ko adierazle konposatuen balioak baliozkotzea; izan ere, kontuan hartu behar da gerta litekeela desberdinak izatea data jakin batean aplikatutako metodologia eta aldagai-kopurua.

2.4.1.

Ohar metodologikoa: I. Erradiografiako (2016) eta II. Erradiografiako (2019) datuen inguruko ñabardurak

Euskadiko Nazioartekotzearen 2022ko Erradiografiari buruzko txosten hau egitean, lan hauek gauzatu dira:

→ **A / Eguneratu egin da II. Erradiografiako ED.34 adierazlearen balioa** [Erasmus programaren onuradun diren lanbide heziketako euskal ikasleen eta irakasleen nazioarteko mugikortasuna] (2019-2020 urteak)

Garai hartan erabilitako datuak behin-behinekoak ziren, eta adierazle horren nazioarteko balioa deskribatzen zuen estatistika-prozesua ez zegoen finkatuta II. Erradiografia idatzi zen garaian.

I. Erradiografiatik asko egin da aurrera prozesu estatistikoetan, eta, beraz, 2019-2020 aldiko datu berrikusia eta behin betikoa aplikatzea erabaki da, adierazlearen bilakaera behar bezala ebaluatu ahal izateko.

→ **B / Haustura estatistikoa. Aldaketa CE.16 adierazlean** (Euskararen erabilera ingurune digitalean).

I. eta II. Erradiografietan, "Ingurune digitalean erabiltzen diren hizkuntzen kopuruaren gainerako euskararen ehunekoa" erabili zen adierazle gisa. W3Techs zen erabilitako informazio-iturria, mundu zabalean webguneetan erabiltzen diren hizkuntzak eta teknologiak aztertzen eta monitorizatzen espezializatutako enpresa bat. Hala ere, bere estatistika-informazioan utzi egin dio euskarari buruzko informazio zehatza eta konparagarria emateari, munduko webguneen % 0,1 baino gutxiago baitira euskarazkoak.

III. Erradiografian, beste adierazle bat baliatzen da: "eus domeinua duten web orri aktiboaren kopurua vs mundu zabaleko webgune aktiboak". Adierazle horren zenbakitzailea PuntuEUS Behatokiaren eta Siteefy izendatzailearen bidez lortzen da (Siteefy izendatzaileak mundu zabalean aktibo dauden web orrien kopurua neurtzen du urtero). Bi iturriak fidagarritzat jotzen dira, bai ematen dituzten datuei dagokienez, bai urteko jarraitutasunari eta erabilgarritasunari dagokienez, eta horrek, printzipioz, bermatzen du euskarak ingurune digitalean izan duen bilakaera neurtuko dela hurrengo erradiografietan.

2.4.2.

Datuak alderatzeko ohar metodologikoa: barne-produktu gordina

Edozein lurraldetako barne-produktu gordina bi aldi desberdinetan alderatzen denean, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Barne-produktu gordinaren bilakaera prezio arruntetan (BPG nominala).
- Barne-produktu gordinaren bilakaera prezio konstanteetan (BPG erreala).
- AEBko dolarraren eta euroaren arteko kanbio-tasaren aldakuntza behatutako aldian.

Barne-produktu gordin nominala lurralde batean denboraldi jakin batean ekoizitako azken ondatsun eta zerbitzuen ekoizpenaren balioa da, merkatuko prezioan. Epe hori urtebetekoa izan ohi da. **Barne-produktu gordin erreala**, berriz, ekoizpen horren balioa da, prezio konstanteetan.

BPG nominalak prezio horien hazkundeak edo gutxitzeak islatzen ditu, inflazioa edo deflazioa izan baldin bada, hurrenez hurren. **BPG errealak**, berriz, oinarri-urte bateko prezioak hartzen ditu erreferentzia gisa (2015ekoak, dokumentu honetan), eta, hari esker, lurralde jakin bateko **produktzioa** aldera daiteke denbora-tarte desberdinetan; izan ere, prezioetan eragindako aldaketak isolatzen ditu, eta, hala, **erosteko ahalmen garbia islatzen du**, denboran izandako prezio-aldaketei erreparatu beharrik gabe.

ADIERAZLE-
SISTEMA



Bi atal ditu:

- 3.1 atalean, testuinguru globaleko lau **adierazle aurkezten dira**: biztanleria, azalera, populazio-dentsitatea eta Euskadiko barne-produktu gordina, guztia ere Euskadik Europan eta mundu zabalean duen demografia-, lurralde- eta ekonomia-garrantziari buruzko datuak eskuratzeko.
- Hurrengo 3.2 atalean, berriz, **Euskadiren presentzia globalaren 34 adierazleak bistaratzen dira**, Nazioartekotzeko Lehen Erradiografian (27 adierazle) eta Nazioartekotzeko Bigarren Erradiografian (7 adierazle) hautatutakoak, erreparatu beharreko dimentsioaren arabera.

3.1.

Testuinguru globalaren adierazleak: zer ordezkatzten du Euskadik munduan

C.1 ADIERAZLEA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BIZTANLERIAREN PISU ERLATIBOA

(Biztanle-kopurua)	Populazioa, 2015. urtea	Euskadik ordezkatzten duen %	Populazioa, 2018. urtea	Euskadik ordezkatzten duen %	Populazioa, 2022. urtea*	Euskadik ordezkatzten duen %	2015-2022 bilakaera 2018-2022
Euskal Autonomia Erkidegoa	2.173.210	% 100,00	2.188.017	% 100,00	2.186.517	% 100,00	+% 0,61 -% 0,07
Europa (EB27)	443.666.812	% 0,49	446.208.557	% 0,49	448.387.872	% 0,49	+% 1,06 +% 0,49
Mundua	7.346.633.037	% 0,03	7.594.270.356	% 0,03	7.951.149.546	% 0,03	+% 8,23 +% 4,70

Iturria: Eustat + Eurostat + Munduko Bankua + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

* Biztanleria 2023/01/01ean.

2022an, munduko biztanleriaren % 0,03 bizi zen Euskadin, edo, bestela esanda, **munduko 3.636 pertsonatik bat Euskadin bizi da**.

Euskadiko populazioa oinarri gisa harturik, mundua populazio-tamaina bereko irudizko 3.636 herrialdetan bana liteke.

EB27ko herrialdeak barnean hartzen dituen biztanleriaren ranking batean, Euskal Autonomia Erkidegoa 22. postuan dago, biztanleen % 0,49rekin —hots, Eslovenia, Letonia, Estonia, Zipre, Luxenburg, Malta eta beste zenbait herrialdeen gaineratik—. Europako 205 biztanletik bat Euskadin bizi da.

- Euskal Autonomia Erkidegoak **2015eko posizio berari** eusten dio. 2015-2022 aldian izandako bilakaerak berretsi egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren hazkundera, nahiz eta biztanleriaren hazkunde-tasa (% 0,61) EB27koa (% 1,06) baino pixka bat txikiagoa izan —eta mundu zabaleko biztanleriaren hazkunde-tasa (% 8,23) baino ia hamalau aldiz txikiagoa—.
- **2018.** urtearekin alderatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren bilakaera negatiboa izan da 2018-2022 aldian. Baiezaturik dago Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria % 0,07 jaitsi dela; aldiz, EB27ko biztanleria pixka bat hazi egin da (% 0,49) —mundu zabalekoa, ostera, % 4,70 hazi areagotu da—.

C.2 ADIERAZLEA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AZALERAREN PISU ERLATIBOA

	Azalera, 2015. urtea (km ²)	Euskadik ordezkutzen duen %	Azalera, 2018. urtea (km ²)	Euskadik ordezkutzen duen %	Azalera, 2022. urtea (km ²)	Euskadik ordezkutzen duen %
Euskal Autonomia Erkidegoa	7.234	% 100,00	7.234	% 100,00	7.234	% 100,00
Europa (EB27)	4.103.834	% 0,18	4.104.251	% 0,18	4.103.987	% 0,18
Mundua	134.325.435	% 0,01	134.279.917	% 0,01	134.670.807*	% 0,01

Iturria: Eustat + Eurostat + Munduko Bankua + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

* Munduko Bankua, 2020ko azken datua.

Euskadiren azalera **munduko azalera osoaren % 0,01 da.**

Euskadiren azalera oinarri harturik, mundua lurralde-dimentsio bereko 18.614 herrialdetan bana liteke; alabaina, Nazio Batuetan erregistratuta dauden herrialde subirano eta mendeko lurraldeen guztizko kopurua, berriz, 234 da.

Euskadiren azalera **EB27ko azalera osoaren % 0,18 da.**

Itsas mailaren desnibelak lirateke EB27ko eta mundu zabaleko lur-azalera irmoaren aldaketaren azalpen posible bat, klima-aldaketaren ondorioz sortuak.

C.3 ADIERAZLEA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BIZTANLERIAREN DENTSITATEA

	Biztanleria-dentsitatea, 2015. urtea (bizt/km ²)	Euskadiren aldakuntza, Europa eta munduarekiko	Biztanleria-dentsitatea, 2018. urtea (bizt/km ²)	Euskadiren aldakuntza, Europa eta munduarekiko	Biztanleria-dentsitatea, 2022. urtea (bizt/km ²)	2015-2022 bilakaera 2018-2022
Euskal Autonomia Erkidegoa	300	-	302	-	302	+% 0,75 +% 0,08
Europa (EB27)	108	% 277,49	109	% 277,78	109	+% 1,06 +% 0,49
Mundua	55	% 449,28	57	% 434,81	59	+% 7,35 +% 3,58

2022an, **Euskadik 302 bizt/km²-ko populazio-dentsitatea du**, munduko guztizkoa (59 biz./km²) baino % 512 handiagoa eta EB27koa (109 biz./km²) baino % 277 handiagoa.

- 2015. urtearekin alderatuta, **Euskadiko biztanleria-dentsitateak EB27koa eta mundukoa baino nabarmen handiagoa izaten jarraitzen du** (2018an % 277 eta % 512 zen, eta 2015ean, berriz, % 278 eta % 545, hurrenez hurren). EB27rekiko, ez du izan aldaketarik. Ildo horretan, munduko dentsitatearen aldean beheranzko aldaketa txiki bat izan du, Euskadin eta EB27 osoan biztanleriaren hazkunde-tasa txikiagoa izatearen ondorioz.
- 2018. urtearekin alderatuta, **Euskadiko biztanleria-dentsitateak nabarmen handiagoa izaten jarraitzen du EB27koarean eta mundukoaren aldean** (2018an % 277 eta % 512, eta 2018an, berriz, % 279 eta % 530, hurrenez hurren). EB27rekiko ez du izan aldaketarik, eta munduko dentsitatearekiko, berriz, beheranzko aldakuntzatxo bat, txikiagoa baita Euskadiko eta EB27 osoko biztanleriaren hazkunde-tasa.

C.4 ADIERAZLEA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BARNE-PRODUKTU GORDINAK MUNDUKO ETA EUROPAKO EKONOMIAN DUEN PISU ERLATIBOA

BPG prezio korranteetan

Milioi eurotan (M EUR)	BPG prezio korranteetan, 2015. urtea (M EUR)	Euskadik ordezkatzen duen %	BPG prezio korranteetan, 2018. urtea (M EUR)	Euskadik ordezkatzen duen %	BPG prezio korranteetan, 2022. urtea (M EUR)	Euskadik ordezkatzen duen %	2015-2022 bilakaera 2018-2022
Euskal Autonomia Erkidegoa	68.497	% 100,00	76.809	% 100,00	84.980	% 100,00	+% 24,06 +% 10,64
Europa (EB27)	12.215.677	% 0,56	13.534.163	% 0,57	15.837.473	% 0,54	+% 29,65 +% 17,02
Mundua ¹	71.047.867	% 0,10	72.654.014	% 0,11	95.500.485	% 0,09	+% 34,42 +% 31,45

Iturria: Eustat + Eurostat + Munduko Bankua + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

Miliodolar (M USD)	BPG prezio korranteetan, 2015. urtea (M USD)	Euskadik ordezkatzeten duen %	BPG prezio korranteetan, 2018. urtea (M USD)	Euskadik ordezkatzeten duen %	BPG prezio korranteetan, 2022. urtea (M USD)	Euskadik ordezkatzeten duen %	2015-2022 bilakaera 2018-2022
Mundua	75.003.074	-	85.804.390	-	100.562.011	-	+% 34,08 +% 17,20

Iturria: Munduko Bankua+ MKM etxeak egina.

Oharrak: (1) USD/EURO parerako 2015ean erabilitako kanbio-tasa = 0,895981769

USD/EURO parerako 2018an erabilitako kanbio-tasa = 0,846740050

USD/EURO parerako 2022an erabilitako kanbio-tasa = 0,949667616

BPG prezio konstanteetan, 2015eko oinarria

Miliodolar (M EUR)	BPG prezio konstanteetan, 2015. urtea (M EUR)	Euskadik ordezkatzeten duen %	BPG prezio konstanteetan, 2018. urtea (M EUR)	Euskadik ordezkatzeten duen %	BPG prezio konstanteetan, 2022. urtea (M EUR)	Euskadik ordezkatzeten duen %	2015-2022 bilakaera 2018-2022
Euskal Autonomia Erkidegoa	68.497	% 100,00	74.920	% 100,00	76.626	% 100,00	+% 11,87 +% 2,28
Europa (EB27)	12.215.677	% 0,56	13.077.856	% 0,57	13.722.739	% 0,56	+% 12,34 +% 4,93
Mundua ¹	67.201.387	% 0,10	69.241.242	% 0,11	85.228.685	% 0,09	+% 26,83 +% 23,09

Iturria: Eustat + Eurostat + Munduko Bankua + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

Miliodolar (M USD)	BPG 2015eko prezio konstanteak (M USD)	Euskadik ordezkatzeten duen %	BPG prezio konstanteetan, 2018. urtea (M USD)	Euskadik ordezkatzeten duen %	BPG prezio konstanteetan, 2022. urtea (M USD)	Euskadik ordezkatzeten duen %	2015-2022 bilakaera 2018-2022
Mundua	75.003.074	-	81.773.906	-	89.745.806	-	+% 19,66 +% 9,75

Iturria: Munduko Bankua + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

Oharrak: (1) USD/EURO parerako 2015ean erabilitako kanbio-tasa = 0,895981769

USD/EURO parerako 2018an erabilitako kanbio-tasa = 0,846740050

USD/EURO parerako 2022an erabilitako kanbio-tasa = 0,949667616

Euskal Autonomia Erkidegoak 84.980 milioi euroko barne-produktu gordina zuen prezio korranteetan 2022an, eta Europako (EB27) BPGaren % 0,54 eta munduko BPGaren % 0,09 ekarri du.

Euskadiko barne-produktu gordina oinarri harturik, mundua tamaina bereko 1.124 ekonomiatan bana liteke.

- ➔ **Euskal Autonomia Erkidegoko BPG errearen hazkundea, prezio konstanteetan, % 11,87 izan da 2015etik 2022ra bitartean, EB-27ko hazkundea baino ehuneko 0,47 puntu txikiagoa eta munduko ekonomiaren hazkundea baino ehuneko 14,16 puntu txikiagoa.** Datu horiek erakusten dute euskal ekonomiak galdu egin duela pisu erlatiboa, bai Europako ekonomian, bai mundu zabalekoan.
- ➔ **Euskal Autonomia Erkidegoko BPG erreala, prezio konstanteetan, % 2,28 hazi da 2018 eta 2022 artean, EB27koa baino ehuneko 2,65 puntu gutxiago eta munduko ekonomia baino ehuneko 20,81 puntu gutxiago** (% 4,93 eta % 23,09 hazi baitira, hurrenez hurren). Datu horien arabera, EAEko ekonomiak galdu egin du pisu erlatiboa, bai Europako ekonomian, bai mundu zabalekoan.
- ➔ Euskadiko BPGaren pisu erlatiboaren galera minimo hori alde batera utzita (gogorarazten da ezen, zenbat eta handiagoa adierazle baten balio absolutua, orduan eta txikiagoa dela haren hazkunde-tasa, nahiz eta hazkunde sendoa egon), **2022ko BPG errealak gainditu egin zuen 2019koa**, eta 1,1 puntuan gainditu zuen, gainera, kateatutako bolumen-indizean.

				2018	2019	2020	2021	2022
EAE	BPG p/m	Maila	Kateatutako bolumen-indizea	109,5	112,0	101,2	107,3	113,1
		Urtetik urterako hazkundea	Kateatutako bolumen-indizea	3,1	2,2	-9,6	6,0	5,4

Oharra: Munduko Bankuaren estatistikak AEBko dolarretan (USD) argitaratzen dira, eta, ondorioz, kanbio-tasak era badu eraginik munduko BPGari buruzko datuetan, Euskadirekin alderatzeko garaian.

USD/EURO parerako 2015ean erabilitako kanbio-tasa = 0,895981769

USD/EURO parerako 2018an erabilitako kanbio-tasa = 0,846740050

USD/EURO parerako 2022an erabilitako kanbio-tasa = 0,949667616

Kanbio-tasaren aldakuntza horrek munduko BPGaren bilakaera desberdina eragiten du prezio korrante eta konstanteetan, segun eta AEBko dolarretan edo eurotan aztertzen den.

- Munduko barne-produktu gordinaren 2015-2022 aldiko bilakaera, prezio arruntetan eta AEBko dolarretan (+% 34,08), nabarmen handiagoa da prezio konstanteen bilakaera baino (+% 19,68). Hala ere, munduko barne-produktu gordinaren 2015-2022 aldiko bilakaera prezio arruntetan eta eurotan (+% 34,42) % 28,3 handiagoa da prezio konstanteetan (+% 26,83) baino.
- Munduko barne-produktu gordinaren 2018-2022 aldiko bilakaera, prezio arruntetan eta AEBko dolarretan (+% 17,20), ehuneko 7,45 puntu handiagoa da prezio konstanteen bilakaera (+% 9,75) baino. Alabaina, munduko barne-produktu gordinaren 2018-2022 aldiko bilakaera, prezio arruntetan eta eurotan (+% 31,45), ehuneko 8,36 puntu handiagoa da prezio konstanteetan (+% 23,09) baino.

3.2.

Presentzia globalaren adierazleak: zer ordezkutzen du eta zer ekarpen egiten du Euskadik gaur egun munduan

Jarraian, **Euskadiko presentzia globalaren adierazleen mapa aurkezten da (34 adierazle)**, behatu beharreko **dimentsioaren** arabera sailkatuta.

3.2.1.

I. dimentsioa: instituzionala

I.5 ADIERAZLEA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ORDEZKARITZA KONTSULARRA

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa 2016an	Adierazlearen balioa 2019an	Adierazlearen balioa 2022an	2016-2022 bilakaera 2019-2022
Euskal Autonomia Erkidegoko kontsulatu-kopurua	Kontsulatu kopurua	43	50	50	+7 0

Iturria: Kanpo Gaietako Ministerioa + Bilboko Kidego Kontsularra.

Gaur egun, **Euskadin 50 herrialdek dute presentzia kontsularra, sei kontsulatu nagusiren** (Kolonia, Frantzia, Maroko, Peru, Errumania eta Venezuela) eta 44 ohorezko kontsulaturen bidez.

50 kontsulatu horiek ordezkutzen dituzten herrialdeek **munduko biztanleriaren % 18,71** hartzen dute, eta haien ekonomiek **munduko produktu gordinaren % 25,49 inguru ematen dute.**

Euskadin **EB27ko 21 herrialdek** dute presentzia kontsularra, eta **biztanleen % 75,32 ez ezik barne-produktu gordinaren % 84,32 ordezkutzen dute.**

2019 eta 2022 artean, kontsulatu irekien kopuruak berdina izaten jarraitzen du Euskadin: bi kontsulatu berri ditugu (Cabo Verde eta Mauritania) eta bi herrialdek itxi dute kontsulatua (Txile eta Grezia). Gaur egun, Andorrako, Greziako, Ekuatore Gineako, Mexikoko, Nikaraguako eta Panamako kontsulatuak hutsik eta bete gabe jarraitzen dute —hau da, garai batean ordezkaritza kontsularra zuten sei herrialde—.

I.6 ADIERAZLEA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GOBERNUAREN PRESENTZIA INSTITUZIONALA MUNDUAN

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa 2016	Adierazlearen balioa 2019	Adierazlearen balioa 2022	2016-2022 bilakaera 2019-2022
Eusko Jaurlaritzaren kanpoko ordezkariak kopurua + BTI bulego kopurua + Kanpoko aholkulariaren lankidetzak-akordio egonkorren kopurua	Kop.	75	82	96	+21 +14

Iturria: Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia, Basque Trade Investment.

Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sare instituzionalak kide hauek ditu:

- **Eusko Jaurlaritzaren 7 ordezkariak** (Belgika-EB, Frantzia, Argentina-MERCOSUR, Txile, Kolonia, Estatu Batuak eta Mexiko).
- BTIren **14 bulego propio**, Euskadiren interes ekonomiko eta komertzialak ordezkatzeko dituztenak **Basque Trade & Investment**en kanpo-sarearen bidez, **19 herrialdeetan** (Alemania+Austria, Brasil, Txina, Hego Korea, AEB, India, Italia, Japonia, Polonia+Ukraina, Erresuma Batua+Irlanda, Txekiar Errepublikak + Eslovakia, Errusia-Bielorrusia, Singapur eta Turkia).
- **72 herrialdeetan** jarduten duen 32 **kanpo-aholkulari** ekonomikok osatutako sarea.

Guztira, Eusko Jaurlaritza munduko **96 herrialdeetan** dago presente sare horren bidez, hau da, munduko barne-produktu gordinaren **% 94,18an**.

96 herrialde horietatik, **19 dira Euskadi Basque Country 2025 Nazioartekotzeko Esparru Estrategian lehentasunezko zatitako herrialdeak**. Lehendakariaren, BTI bulegoen eta kanpoko aholkulariaren lankidetzak-akordio egonkorren bitartez, **Eusko Jaurlaritza presente dago Euskadientzat lehentasunezko zatitako dauden herrialde guztietan, hots, hemeretzi herrialdeetan** (Alemania, Argentina, Kanada, Txile, Txina, Kolonia, Korea, Danimarka, AEB, Finlandia, Frantzia, India, Italia, Japonia, Mexiko, Erresuma Batua, Senegal, Hegoafrikar Errepublika eta Suedia).

Lehentasunezko **19 herrialde** horiek **munduko produktu gordinaren % 70,77** osatzen dute.

2019. urtearekin alderatuta, **kanpo-aholkulariaren zuzeneko presentzia handitzearen aldeko apustu handia egin da Europan** (Austria, Bielorrusia, Frantzia, Suitza), Korean, Zeelanda Berria eta Venezuelen. Bertan behera geratu da Costa Ricako ordezkariak.

I.7A ADIERAZLEA: EUSKO JAURLARITZAK SINATUTAKO NAZIOARTEKO AKORDIOAK

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2016ko stocka)	Adierazlearen balioa (2019ko stocka)	Adierazlearen balioa (2022ko stocka)	Bilakaera 2016-2022 2019-2022
Eusko Jaurlaritzak sinatutako nazioarteko akordioen kopurua (stocka, 2004. urteaz geroztik)	Akordio-kopurua (stocka)	453	471	799	+346 +328

Iturria: Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia, Eusko Jaurlaritza.

Azken sei legegintzaldietan, Eusko Jaurlaritzak eta haren sailek **nazioarteko 799 akordio** sinatu dituzte guztira; horietatik **43 aldeaniztunak** dira, eta **756 aldebikoak**.

Sinatutako 799 akordio horiek **66 herrialde** hartzen dituzte, munduko barne-produktu gordinaren % **87,13**, askotariko gaietan (Kanpo Ekintza; Nekazaritza eta Arrantza; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza; Kultura; Hizkuntza Politika; Hezkuntza; Turismoa; Enplegua eta Gizarte Politikak; Ingurumena, Jasangarritasuna eta Lurralde Politika; Osasuna). Nabarmentzekoak dira Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren (Etxepare) eta Hezkuntza Sailaren aldebiko akordioak, 2019tik 2022ra bitartean 165 eta 155 izenpetu baitituzte, hurrenez hurren.

2022ko amaierara arte erregistratutako 756 aldebiko akordioetatik 481 (% 63,6) 2025eko Nazioartekotzeko Esparru Estrategian (BASQUE COUNTRY ESTRATEGIA) **lehentasunezko** definitutako 19 herrialdeetatik 17rekin sinatu ziren (Alemania, Argentina, Kanada, Txile, Txina, Kolonia, Hego Korea, Danimarka, AEB, Finlandia, Frantzia, India, Italia, Japonia, Mexiko, Erresuma Batua, Senegal, Hegoafrika, Suedia). Gainerako 275 akordioak honako hauei dagozkie: Europar Batasuna (16 herrialde, 131 akordio), Europako beste herrialde batzuk (8 herrialde, 27 akordio), Latinoamerika (12 herrialde, 91 akordio), Asia (6 herrialde, 13 akordio), Afrika (5 herrialde, 5 akordio), eta Australia eta Zeelanda Berria (8 akordio).

I.7B ADIERAZLEA: EUSKO JAURLARITZAREN PARTAIDETZA DUTEN NAZIOARTEKO SAREAK

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2016ko stocka)	Adierazlearen balioa (2019ko stocka)	Adierazlearen balioa (2022ko stocka)	2016-2022 bilakaera 2019-2022
Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duten nazioarteko sareen kopurua	Sare-kopurua	75	122	147	+69 +25

Iturria: Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusia, Eusko Jaurlaritza.

Eusko Jaurlaritzak, bere 12 sailen bitartez, **nazioarteko 147 saretan parte hartzen du —Europako irismeneko 94 saretan eta irismen globaleko 53 saretan—**.

Egiaztatu da ahalegin handia egin dela eta bilakaera oso positiboa izan dela 2019. urtearekin alderatuta; izan ere, urte horretan nazioarteko 122 sare zeuden **—79 Europakoak eta 43 irismen globalekoak—**.

Hauek dira nazioarteko sare horietan parte hartzen duten sailak: Segurtasuna; Lana eta Enplegua; Gobernantza Publikoa eta Autogobernua; Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena; Ekonomia eta Ogasuna; Hezkuntza; Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa; Osasuna; Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak; Kultura eta Hizkuntza Politika; Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa.

I.8 ADIERAZLEA: EUSKAL ETXEEN SAREA MUNDUAN

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2016)	Adierazlearen balioa (2019)	Adierazlearen balioa (2022)	Bilakaera 2016-2022 2019-2022
Euskal Etxeen zentro kopurua munduan	Euskal Etxeen kopurua	190	193	196	+6 +3

Iturria: euskaletxeak.net

Gaur egun, **196 Euskal Etxe daude erregistratuta 25 herrialdetan**. Argentinan daude zentroen % 44 (87 Euskal Etxe, 2019an baino bi gehiago eta 2016an baino hiru gehiago), eta ondoren datoz Amerikako Estatu Batuak % 20ekin (38 Euskal Etxe).

2019 eta 2022 artean, **hiru Euskal Etxe gehiago sortu dira**, bi Argentinan eta bat Perun.

2016 eta 2019 artean, **beste hiru Euskal Etxe sortu ziren**, bata Argentinan, bestea Frantzian eta hirugarrena Perun.

3.2.2.

II. dimentsioa: Ekonomia eta Industria

E.9 ADIERAZLEA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ONDASUNAK ESPORTATZEKO JOERA

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2018)	Adierazlearen balioa (2022)	Bilakaera 2015-2022 2018-2022
Ondasunen esportazioak / Euskadiko BPGd	%	% 31,95	% 33,18	% 38,29	+% 6,34 +% 5,11

Iturria: Eustat + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

Euskadiko ondasunen kanpo-merkataritzak % 38,29ko esportazio-joera izan zuen 2022an; munduko ondasun-esportazioak, aldiz, **munduko** produktu gordinaren % 24,35 izan ziren.

Euskal ekonomiaren esportazio-joera handi horrek —munduko batezbestekoa baino 13,94 puntu handiagoa— **garbi erakusten du euskal ondasunak esportatzen dituzten enpresen kanpo-orientazio argia.**

2015-2022 aldian, **% 6,34 handitu da Euskadiko ondasunen kanpo-merkataritzaren esportazio-joera,** eta, oro har, % 3,64 igo da munduko ondasun-esportazioek munduko produktu gordinaren gainean duten pisua. Horrek adierazten du **euskal ekonomiaren esportazio-joerak hobera egiten jarraitzen duela eta munduko batezbestekoaren oso gainetik, gainera.** 2022an, esportatzeko joeraren aldagaian dugun posizioa (konparaziozko abantaila) 2018an lortutakoa baino ehuneko 5,11 puntu handiagoa da (munduko hazkundearen ehuneko 1,80 puntuen aldean).

E.10 ADIERAZLEA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ONDASUNEN ESPORTAZIOEN PISU ERLATIBOA ONDASUNEN MUNDUKO ESPORTAZIOETAN

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2018)	Adierazlearen balioa (2022)	2015-2022 bilakaera 2018-2022
Euskadiko ondasunen esportazioak / Munduko ondasunen esportazioak	%	% 0,1492	% 0,1556	% 0,1113	-% 0,0379 -% 0,0443

Iturria: Eustat + Trademap + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

2022an, **Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen esportazioak munduko esportazioen % 0,11 izan ziren;** hala, munduan esportazio-jardueraren bidez sortutako 898 euroko bat Euskadin sortu zen.

EAEko barne-produktu gordina munduko produktu gordinaren % 0,09 izanik, Euskadiko ondasun-esportazioen dimentsioa handiagoa izateak (% 0,11) ederki islatzen du gure irekitasuna eta ekonomiaren lehiakortasuna.

2015-2022 aldian, **behera egin du Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen esportazioak munduko ondasun-esportazioetan duen pisu erlatiboak** (2022an, munduan esportazio-jardueraren bidez sortutako 898 eurotik, bat Euskadin sortzen zen; 2018an 643 eurotik bat; eta 2015ean, berriz, 670 eurotik bat).

2018 eta 2022 artean, **% 0,04 murriztu da Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen esportazioek munduko esportazioetan duten pisu erlatiboa,** baina datu hori kontu handiz tratatu behar da, USD/EUR kanbio-tasaren gorabeheragatik (munduko esportazioak AEBko dolarretan erregistratzen dira) eta euroak 2022an izan duen etengabeko balio-galeragatik. Dibisa bihurtarri baten balio-galeraren ondorioz, baliteke aurreko urteetan baino esportazio-bolumen handiagoekin ere esportazioen moneta-balioa txikiagoa izatea AEBko dolarretan, esportatutako produktuen prezioak merkatzearen ondorioz. Horrek azalduko luke 2022an izaniko pisu erlatiboaren galera txiki hori.

E.11 ADIERAZLEA: EUSKADIN EGINDAKO ATZERRIKO INBERTSIO ZUZENAREN (AIZ) BALIOA

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2013-2015)	Adierazlearen balioa (2016-2018)	Adierazlearen balioa (2019-2021) (2022)	Bilakaera 2015- 2022 2018- 2022
Euskadin aldi jakin batean egindako AIZren stock-balioa	Miloi eurotan	3.385,79	10.962,17	3.166,10 5.571,35 (8.737,46)	-2.224,71

Iturria: DataInVex, Atzerriko inbertsioaren estatistikak Espainian + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

2019-2021 hirurtekoan, **Euskadik 3.166,1 milioi euroko zuzeneko inbertsioa** jaso zuen atzerriatik, eta **aurreko hirurtekoan (2016-2018), berriz, 10.962,17 milioi eurokoa** izan zen, hau da, **7.796,01 milioi euro gutxiago**. Datu horiek argi eta garbi erakusten dute COVID-19ak Euskadiko AIZn izaniko inpaktu negatiboa.

2022an hori irauli egin da egoera, eta pandemia aurreko egoerarekin bat datozen AIZ mailetara itzuli da, 5.571,35 milioi euro AIZ Euskadin, urte bakar batean.

2019-2022 aldian, **Euskadik**, munduko produktu gordinaren ia % 0,10 izanik, **8.737,46 milioi euroko zuzeneko inbertsioa** jaso zuen atzerriatik. Datu horrek adierazten du **mundu osoan egindako atzerriko inbertsio zuzenaren (AIZ) % 0,19 jaso zuela Euskadik**.

Aldi horretan bertan (2019-2022) atzerriko inbertsio zuzena hartzen badugu barne-produktu gordinarekin alderaturik, **Euskadik jasotako atzerriko zuzeneko inbertsioa gure BPGaren % 2,81 izan zen, munduko batezbestekoa baino ia ehuneko puntu bat handiagoa** (munduko ratioa munduko produktu gordinaren % 1,86 baita).

2019-2022 aldian, **Euskadik hobetu egin du munduko atzerriko inbertsio zuzenean duen lehia-posizioa 2013-2015 aldiari dagokionez, mundu osoan egindako atzerriko inbertsio zuzenaren (AIZ) guztizkoaren % 0,08tik % 0,14ra igaro baita, nahiz eta lehiakortasun-posizioa galdu duen 2016-2018 aldiari dagokionez, kontuan izanik Euskadiko AIZ munduko AIZaren % 0,21 izatera iritsi zela.**

E.12 ADIERAZLEA: EUSKAL ENPRESEN KANPO-EZARPENAK

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2016ko stocka)	Adierazlearen balioa (2019ko stocka)	Adierazlearen balioa (2022ko stocka)	2016-2022 bilakaera 2019-2022
Euskal enpresen kanpo-ezarpenen kopurua	Kop.	1.688	1867	2.570	+882 +703

Iturria: 2016. urtea: CIVEX; 2019. urtea: CIVEX + BTI; 2022. urtea: BTI.

2022. urtean, euskal enpresek atzerrian dituzten ezarpenen stocka **2.570 ezarpenetara** iritsi da, hau da, 2019an baino % 37,65 gehiago.

Hala ere, kontu handiz hartu beharrekoa zen 2019ko datua, une hartan BTIk eguneratzeko baitzeukan aurreko iturriaren (CIVEX) datu-basea, eta bere datu-basearekin harmonizatzeko zain zegoen.

2022an, gure lurraldetik kanpo munduan dauden euskal enpresen 2.570 ezarpenetatik 1.529 **merkataritza-ezarpenak dira (% 59,49) eta 1.041, berriz, produkzio-ezarpenak (% 40,51).**

Euskal enpresak, 2.570 ezarpenen bidez, **99 herrialdetan** daude —eta herrialde horiek **munduko produktu gordinaren % 94,67** biltzen dute—.

Ezarpen horien % 63,85 (1.641) **BASQUE COUNTRY ESTRATEGIAN** lehenasunezko zatitako definitutako **hemeretzi herrialdeetan daude.**

E.32 ADIERAZLEA: JATORRI DEITURA BABESTUAK

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2019)	Adierazlearen balioa (2022)	2019-2022 bilakaera
Europar Batasunean erregistratutako Jatorri Deitura Babestuak (JDB)	JDB kopurua	4	5	+1

Iturria: eAmbrosia datu-basea + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

2019ko apirilean, Europar Batasunak datu-base publiko berri bat jarri zuen martxan, eAmbrosia izenekoa, eta horrek homogeneizatu eta eguneratu egiten ditu jatorri-deitura babestuen datu-baseak eta nekazaritzako elikagaien sektoreko beste izendapen geografikoko kategoria batzuk.

2023ko irailean, datu-baseak **3.845 jatorri-deitura babestu** zeuzkan erregistratuta Europar Batasunean, **60 herrialde** eta/edo eremu geografikotan **Euskadik jatorri-deitura babestuen 5 erregistro dauzka**, hau da, erregistratutako jatorri-deitura babestu guztien % 0,03.

E.33 ADIERAZLEA: EUSKO JAURLARITZAK INBERTITZAILE ATZERRITARRENTZAT JAULKITAKO EUSKADIKO BONU JASANGARRIEN ERAKARGARRITASUNA HAIEN JAULKITZE-EGUNEAN

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2018-2019)	Adierazlearen balioa (2020-2022)	2020-2022 bilakaera 2018-2019
Jaulkipen-datan bonu jasangarriak (jaulkipenen stocka) erosten dituzten atzerriko inbertitzaileak	Herrialde-kopurua	13	16	+3

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saila + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

2020-2022 aldian, Eusko Jaurlaritzak **Euskadiko Bonu Jasangarrien lau jaulkipen gehiago egin ditu, 2.600 milioi euroko balioarekin**. 2018ko eta 2019ko jaulkipenetan egin bezala, 2020ko, 2021eko eta 2022ko Bonu Jasangarrien jaulkipenak Euskadi 2030 Agendaren eta GJHen helburuekin bat datozen proiektu sozialak eta proiektu berdeak finantzatzeko erabili dira. Atzerriko inbertitzaileen partaidetza handia izan da jaulkipen guztietan; guztira **16 herrialdetako** inbertitzaileek sinatu dituzte Euskadiko Bonu Jasangarri horien jaulkipenak, 2022ra arteko sei edizioetan.

2018tik 2022ra, Eusko Jaurlaritzak 3.700 milioi euroko balioa du Euskadiko Bonu Jasangarrien jaulkipenengatik, eta horrek ederki islatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren erakargarritasuna eta nazioarteko konfiantza.

3.2.3.

III. dimentsioa: Kultura eta Euskara

CE.13 ADIERAZLEA: EUSKAL ONDAREA MUNDUAN

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2016)	Adierazlearen balioa (2018)	Adierazlearen balioa (2021)	Bilakaera 2016-2021 2019-2021
UNESCOk Munduko Ondare deklaraturako euskal elementuen kopurua / Mundu zabalean aitortzen hori daukaten elementuen kopurua	%	% 0,3	% 0,27	% 0,26	-% 0,04 -% 0,01

Iturria: UNESCO + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

Euskadik munduko biztanleriaren % 0,03 eta azaleraren % 0,01 biltzen du, eta UNESCOk 2021ean aitortutako **1.154 elementuetatik hiru dauzka (% 0,26) Munduko Ondare kategorian aitortuta** (2023an eskuragarri dagoen azken datua).

EB27ri dagokionez, Euskadik biztanleriaren % 0,49 eta azaleraren % 0,18 biltzen du, eta eremu geografiko horretako 27 herrialdeetan **Munduko Ondare** gisa deklaraturako 368 elementuen **% 0,82** du.

2018 eta 2021 artean, UNESCOk **33 elementu gehiago** izendatu ditu munduko ondare (90 guztira, 2016 eta 2018 artean), haietako bat ere ez Euskadin, eta, beraz, Euskadiren pisu erlatiboak beherakada txiki bat izan du: **Munduko Ondarearen** % 0,30 zuen 2016an, 2018an % 0,27 eta % 0,26 igarozen. EB27n posizio bera mantentzen da.

CE.14 ADIERAZLEA: EUSKADIKO KULTURA-INDUSTRIEK GUZTIZKO ESPORTAZIOETAN DUTEN PISU ERLATIBOA

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2018)	Adierazlearen balioa (2022)	Bilakaera 2015-2022 2018-2022
Euskadiko kultura-industriren esportazioen balioa / Euskadiko esportazioen guztizko balioa	%	% 0,1532	% 0,1474	% 0,1113	-% 0,0419 -% 0,0361

Iturria: Eustat + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

Euskal kultura-industriren kanpo-salmentak EAEko esportazio guztien % 0,11 izan dira 2022an, eta kultura-industrietako ondasunen munduko esportazio guztien % 0,03.

2022an, **Euskadiko kultura-industrietako ondasunen esportazioen % 69 eta inportazioen % 44 liburu, egunkari eta beste argitalpen-jardura batzuen argitalpenari** dagozkie. Partida horrek **17,4 milioi euroko merkataritza-saldo positiboa ematen du.**

2018ko balioa 2022koarekin alderatuta, eta 2015eko balioa 2018koarekin eta 2022koarekin alderatuta, berretsi egiten da **EAEko kultura-industriren pisu erlatiboaren beheranzko joera, ondasunen esportazioen guztizkoarekiko** —joera hori 2018an detektatu zen—.

CE.15 ADIERAZLEA: EUSKAL KIROLARI OLINPIKOAK

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2000-2012)	Adierazlearen balioa (2000-2018)	Adierazlearen balioa (2000-2022)	2012-2022 bilakaera 2018-2022
Euskal parte-hartzaileen kopurua Udako Olinpiar Jokoetan azken edizioetan	Pertsona-kopurua	101	122	156	+55 +34

Iturria: Albistea + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

156 euskal kirolarik parte hartu dute **Udako Olinpiar Jokoen azken zazpi edizioetan:** Sydney 2000, Atenas 2004, Pekin 2008, Londres 2012, Rio de Janeiro 2016, PyeongChang 2018 eta Tokyo 2020.

Udako Olinpiar Jokoen azken zazpi edizioetan parte hartu duten mundu osoko 68.590 atleten % 0,23 euskaldunak dira, eta oso datu positiboa da hori, kontuan hartuta Euskadi munduko biztanleriaren % 0,03 dela.

Udako azken Olinpiar Jokoetan, Tokyo 2020 (2021ean egin ziren), 30 euskal kirolarik parte hartu zuten.

CE.16 ADIERAZLEA: EUSKARAREN ERABILERA INGURUNE DIGITALEAN

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa 2015ean (oinarri-urtea)	Adierazlearen balioa (2018)	Adierazlearen balioa (2022)	2015-2022 bilakaera 2019-2022
eus domeinua duten web orri aktiboen kopurua vs munduan aktibo dauden web orrien kopurua	%	% 0,0028	% 0,0053	% 0,0072	+0,0044 +0,0019

Iturria: puntu.eus Behatokia + Siteefy.com; MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

UNESCOren arabera, 6.700 hizkuntza hitz egiten dira mundu osoan, baina Interneten 300 hizkuntza pasatxo bakarrik daude ordezkatuta.

Euskadin .eus domeinuarekin aktibo dauden web orrien kopuruak gora egiten du urtero, bi digituko hazkunde-tasekin —mundu mailako web orri aktiboen hazkunderan baino erritmo askoz handiagoan—.

Puntu.eus behatokiaren arabera, .eus domeinua duten webguneak 4.931tik 9.126ra eta 14.265era igo dira 2015, 2018 eta 2022an, hurrenez hurren.

Horrek esan nahi du 2015etik 2022ra bitartean % 189,29 hazi dela (% 56,31, hain justu, 2018tik 2022ra bitartean).

Adierazle honen ondorioetarako, erreferentzia urteetan mundu zabalean aktibo dauden webguneen kopuru absolutua hartzen da izendatzaile gisa —zehazki, 2022an, 198,99 milioi web orri aktibo—.

Berresten da .eus domeinuaren proportzioa gero eta handiagoa dela behaketa-aldian.

CE.17 ADIERAZLEA: EUSKARAKO ETA EUSKAL KULTURAKO KATEDRA- ETA LEKTORETZA-SAREA MUNDUAN

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015-2016 ikasturtea)	Adierazlearen balioa (2018-2019 ikasturtea)	Adierazlearen balioa (2021-2022 ikasturtea)	2016-2022 bilakaera 2019-2022
Euskarako eta euskal kulturako katedra- eta lektoretza-kopurua munduan	Kop.	41	44	47	+6 +3

Iturria: Etxepare + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

2021-2022 ikasturtean, **guztira 35 lektoretza daude 18 herrialdetan** (Alemania, Argentina, Txile, Kuba, Espainia, Estatu Batuak, Finlandia, Frantzia, Hungaria, Irlanda, Italia, Japonia, Mexiko, Polonia, Erresuma Batua, Txekiar Errepublikak, Errusia eta Uruguai) **eta hamabi katedra lau herrialdetan**

(6 Estatu Batuetan, 2 Erresuma Batuan, 1 Alemanian, 1 Frantzian, 1 Argentinan eta 1 Quebecen, Kanada), eta **euskara eta euskal kultura irakasten dituzte nazioarteko unibertsitateetan.**

Euskal ikasketen azken hiru katedrak 2021-2022 ikasturtean jarri dira martxan nazioarteko hainbat unibertsitateetan: Elbira Zipitria katedra McGill University (Quebec); Alan R. King katedra University of Wales Trinity Saint David (Gales); eta Frank Bidart katedra California State University Bakersfield (CSUB) (AEB). Katedra horietan, ikergai dituzte euskal ikasketen berrikuntza soziala (Elbira Zipitria katedra), euskal soziolinguistika nazioartean (Alan R. King katedra), eta kultura, artea eta berrikuntza (Frank Bidart katedra).

2018-2019 ikasturteari dagokionez, **gora egin du katedra kopuruak** (bederatzitik hamabira igaro da), bai eta euskarazko katedraren bat duten **herrialdeen kopuruak** ere (hamazortzi herrialdetik hemeretziara igo da, Kanada sartu ondoren).

3.2.4.

IV. dimentsioa: Turismoa

T.18 ADIERAZLEA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN TURISMO-GASTUA MUNDUKO GAINERAKOAREKIN

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2014)	Adierazlearen balioa (2017)	Adierazlearen balioa(2022)	Bilakaera 2014-2022 2017-2022
Turismo hartzaileak eta turismo igorleak sortutako gastua	Milioi eurotan	6.136	7.220	7.746	+1.610 +526

Iturria: Eustat + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

2022an, kanpoko turismo-jarduerak **Euskadin eta Euskaditik** (kanpora ateratako euskal turistak eta munduko gainerako lekuetatik Euskadira etorritako turistak), orotara, **7.746 milioi euroko gastua eragin zuen.**

Kanpoko turismo-jarduerak Euskadin eta Euskaditik sortutako gastua % 26,2 hazi da 2022 eta 2014 artean; eta % 7,3, 2022 eta 2017 artean. Mundu-mailan, 2022ko turismo-gastuak 1,305 bilioi USD-koak izan ziren. Mundu-mailan, turismoaren gastuen beherakada -%17,8 ingurukoa izan zen, 2022 eta 2014 artean; eta -%18,6koa, 2022 eta 2017 artean. Datu horiek erakusten dute, mundu-mailan, turismoaren sektorean, eragin negatibo handia izan duela Covid19ak. Mundu-mailako eraginarekin alderatuta, Euskadiko 2022ko datuek adierazle horren bilakaera oso positiboa izan dela erakusten dute, eta gero eta hurbilago gaude pandemiaren aurreko turismoaren gastuaren errekorretik. (7.774 milioi euro, 2019an).

T.19 ADIERAZLEA: TURISTEN ETORRERA EUSKADIN

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2018)	Adierazlearen balioa (2022)	Bilakaera 2015-2022 2018-2022
Euskadi bisitatu zuten turistaren kopurua	Milioika pertsona	3,0	3,3	3,34	+0,34 +0,04

Iturria: Eustat (Euskal Autonomia Erkidegoko establezimendu turistiko hartzaileetako sarreraren estatistika-taula) + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

2022an, Euskadik 3,34 milioi turista jaso zituen, hau da, mundu osoko 960 milioi turisten % 0,35ek Euskadi aukeratu zuten helmuga gisa.

Eskala globalean, ez dira berreskuratu COVID-19aren aurreko mailak. Kalkulatzen da 2022an mundu mailako turistaren kopurua 2018an baino % **31,43 txikiagoa** dela (960 milioi, eta 2018an, berriz, 1.400 milioi).

T.20 ADIERAZLEA: EUSKAL GASTRONOMIA, MICHELIN IZARRAK

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2018)	Adierazlearen balioa (2022)	Bilakaera 2015-2022 2018-2022
Euskal jatetxeetako Michelin izarren kopurua	Michelin izar-kopurua	29	31	34	+5 +3

Iturria: 2022ko Michelin Gida.

Euskal gastronomia ezaguna da nazioartean, eta motor turistikoa da Euskadirentzat. Jatetxeen sektoreak sortzen dituen sinergien ondorioz, bisitatzeko arrazoi interesgarrietako bat da gurera etortzen direnen iritzian.

2022ko Michelin Gidaren arabera, **24 euskal jatetxek 34 Michelin izar dituzte.**

Lau euskal jatetxek dute gida ospetsu horren sari nagusia (3 Michelin izar), hau da, Euskadin daude **EB27n hiru Michelin izan dituzten jatetxeen % 5,41, eta Euskadin daude, orobat, mundu zaballean kategoria hori bera duten jatetxeen % 2,84.**

Monakoren atzetik, **Euskadi da Michelin izarren kontzentrazioerik handiena duen lurraldea mila km²-ko (4,7 izar mila km²-ko),** ondoren Belgika (4,36 izar mila km²-ko) eta Luxenburgo (4,1 izar mila km²-ko).

2018. urtearekin alderatuta, **2022an bi euskal jatetxe gehiagok dute Michelin izar bat,** bata Bizkaian dago eta bestea, berriz, Gipuzkoan.

3.2.5. V. dimentsioa: Garraioa

TR.21 ADIERAZLEA: PERTSONEN NAZIOARTEKO AIRE-GARRAIOA EUSKADIN

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2014)	Adierazlearen balioa (2018)	Adierazlearen balioa (2022)	Bilakaera 2014-2022 2018-2022
Nazioarteko helmuga edo jatorria duten euskal aireportuetako aireko garraioaren bidaiari kopura / Euskal aireportuetako aireko bidaiariak guztira	%	% 37,83	% 40,78	% 33,02	-% 4,81 -% 7,76

Iturria: Garraioaren Informazio Sistema – Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Saila.

2022an, euskal aireportuak erabili zituzten bidaiari guztien (5,7 milioi pertsona) **% 33,02k** (1,9 milioi pertsona) nazioarteko helmuga edo jatorria zuen.

Euskadin ateratzen edo sartzten da munduan airez garraiatutako nazioarteko bidaiari guztien % 0,15, eta EB27ko aireko bidaiarien, kasuan, berriz, % 0,19.

2018. urtearekin alderatuta, nazioarteko helmuga edo jatorria duten euskal aireportuetako bidaiarien kopurua **% 20,85** jaitsi da, eta datu nabarmena da hori, kontuan hartuta oraindik ez direla berreskuratu pandemiaren aurreko mailak. Haien pisu erlatiboa —euskal aireportuak erabili zituzten bidaiarien guztizko kopuruari dagokionez— % 40tik % 33ra jaitsi da 2018tik 2022ra.

Mundu zabalean, 2018 eta 2022 artean bidaiari-kopurua %31,4 jaitsi da: 2018an 1.400 milioi izan ziren, eta 2022an 960 milioi turista baino ez.

Beren horretan jarraitzen du nazioarteko helmugaren batera euskal aireportuetatik abiatzen eta/edo iristen diren EB27ko aireko bidaiarien kopuruak, eta horrek esan nahi du gure aireportuek mantentzen dutela Europako ingurunean duten posizionamendua.

TR.22 ADIERAZLEA: SALGAIEN NAZIOARTEKO ITSAS GARRAIOA EUSKADIN

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2014)	Adierazlearen balioa (2018)*	Adierazlearen balioa (2022)*	Bilakaera 2014-2022 2018-2022
Euskadin esportazioetan itsasoz garraiatutako tonak + inportazioetan itsasoz garraiatutako tonak / Eskala globalean itsasoz garraiatutako tonak guztira	%	% 0,34	% 0,35	% 0,29	-% 0,05 -% 0,06

Iturria: Estatuaren portuak: Urtekari Estatistikoa + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

* Behin-behineko datuak.

2022an, **mundu osoan** itsasoz garraiatutako 11.154 milioi tonatik % **0,29 mobilizatu zuten euskal portuek**, hau da, 32,89 milioi tona; **EB27ko** portuetatik garraiatutako 3.532 milioi tonetatik, berriz, % **0,93**.

2018. urtearekin alderatuta, euskal portuen merkatu-kuotak behera egin du munduan 2022an (% 0,06), baina Europan % 0,93 gora, kontuan izanik 2018an % 0,85 izan zela (+0,08).

3.2.6.

VI. dimentsioa: Zientzia eta Teknologia

CT.23 ADIERAZLEA: PCT NAZIOARTEKO PATENTEEN ESKAERAK

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2018)	Adierazlearen balioa (2022)	Bilakaera 2015-2022 2018-2022
PCT nazioarteko patenteen eskaerak / BPGaren mila milioi (EAP eurotan)	Patente-eskaeren kopurua / BPGaren mila milioi	1,48	2,56	1,68	-0,20 -0,88

Iturria: Eustat + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

2022an, Berrikuntza Adierazleen Panelak (IUS) adierazten duenez, **nazioarteko PCT patenteen** (Patent Cooperation Treaty) eskaera-kopurua 1,68koa izan zen BPGko mila milioiko. **Eustaten metodologiaren** arabera, datu horrek nazioarteko patenteen 143 eskaera inguru adierazten ditu.

Urte horretan bertan, **nazioarteko PCT patenteen** eskaerak 278.100 izan ziren mundu zabalean; beraz, **Euskadik**, munduko biztanleriaren % 0,03rekin, **PCT patenteen eskaeren % 0,05 bildu zuen** (2018an, aldiz, % 0,08).

EB27n, 2022an, nazioarteko patenteen eskaera **3,49** zen mila milioiko, hau da, **Euskadi baino 1,8 puntu** gehiago.

2018. urtearekin alderatuta, **nazioarteko patenteen eskaera kopurua** % 2,56tik % 1,68ra igo da — Euskadiko BPGaren mila milioiko —; EB27n, berriz, % 3,53tik % 3,49ra jaitsi da; beraz, ratio horretan, **Euskadiko gapa ehuneko 0,84 puntu igo da EB27rekiko** ratio horretan.

Oharra: 2014ko eta 2018ko EBko datuak EB28ri dagozkio, eta ez dago EB27ri buruzko daturik.

CT.24 ADIERAZLEA: EUSKADIKO ERDI- ETA GOI-TEKNOLOGIAKO PRODUKTUEN ESPORTAZIOA

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2018)	Adierazlearen balioa (2022)	Bilakaera 2015-2022 2018-2022
Euskadiko erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioa / Produktuen esportazio guztiak	%	% 51,90	% 52,92	% 51,68	-% 0,22 -% 1,24

Iturria: Eustat + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

Europar Batasunak Berrikuntza Adierazleen Panelean (Innovation Union Scoreboard, IUS) aplikatutako metodologiaren arabera, **Euskadiko erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioak produktuen esportazio guztien % 51,68** izan ziren 2022an.

Urte horretan bertan, **EB27ko** produktu-mota horren esportazioak (erdi- eta goi-teknologia) eremu horretako produktuen esportazio guztien % **55,53** izan ziren; aldiz, **maila globalean**, erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioak munduko esportazioen % **42,55** izan ziren.

Berretsi da Euskadi eskualde nabarmena dela mundu zabalean, bai erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioetan, bai berrikuntza teknologiko industrialean. Hala ere:

- 2022 eta 2018 urteen artean, **erdi- eta goi-teknologiako produktuen Euskadiko esportazioen pisu erlatiboa % 1,24 jaitsi da** produktuen esportazioen guztizkoaren gainean (munduan eta EB-27n, % 1,0 eta % 5,45 jaitsi dira, hurrenez hurren).
- 2022 eta 2015 urteen artean, **% 0,22 jaitsi da Euskadiko erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioek produktuen esportazio guztiekiko duten pisu erlatiboa**. Mundu zabalean %1,49 jaitsi da, baina EB27n, berriz, % 2,35 igo.

2022an, EB27ko hogeita zazpi herrialdeetatik 15. postuan dago Euskadi (28 herrialde, Espainia kontuan hartuz gero), 2015ean 10. postuan eta 2018an 13. postuan.

3.2.7.

VII. dimentsioa: Hezkuntza

ED.25 ADIERAZLEA: ERASMUS PROGRAMAREN ONURADUN DIREN UNIBERTSITATE-IRAKAS-KUNTZETAKO EUSKAL IKASLEEN NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNA

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015-2016 ikasturtea)	Adierazlearen balioa (2018-2019 ikasturtea)	Adierazlearen balioa (2021-2022 ikasturtea)	2016-2022 bilakaera 2019-2022
Erasmus programaren esparruan nazioarteko unibertsitateetara ikastera joaten diren euskal ikasleen kopurua / Erasmus nazioarteko mugikortasun-programaren onuradun diren ikasleen guztizko kopurua	%	% 0,34	% 0,40	% 0,75	+% 0,06 +% 0,35

Iturria: Hezkuntza Saila + Europako Batzordea + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

2021-2022 ikasturtean, **Euskadiko 2.098 unibertsitate-ikasle** joan ziren atzerrira Erasmus bekekin ikastera, hau da, **unibertsitate-trukeko programa horretan parte hartu zuten Europako ikasle % 0,75 (280.505) euskaldunak ziren.**

Erasmusen erreferentzia gehigarri gisa, **atzerriko unibertsitate-ikasleen mugikortasuna sustatzen duten beste programa batzuk** kontuan hartuta —euskal unibertsitateen aldeko akordioak eta programak, esaterako—, egiaztatu da 2021/2022 ikasturtean **4.244 euskal ikasle** joan zirela atzerrira unibertsitate-ikasketak egitera edo osatzera.

Maila globalean, UNESCOren kalkuluaren arabera, 6 milioi unibertsitate-ikasle ari dira ikasketak egiten atzerrian.

UNESCOk emandako datu hori kontuan hartuta, ikasketak atzerrian egiten eta/edo osatzen dituzten unibertsitate-ikasleen % 0,07 euskaldunak dira, eta datu hori positiboa da, Euskadi munduko biztanleriaren % 0,03 baita.

ED.34 ADIERAZLEA: ERASMUS PROGRAMAREN ONURADUN DIREN LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL IKASLEEN ETA IRAKASLEEN NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNA

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2019-2020)	Adierazlearen balioa (2021-2022)	2019-2021 bilakaera
Erasmus LH programaren esparruan nazioarteko zentroetara ikastera joaten diren Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleen kopurua / Erasmus nazioarteko mugikortasun programaren onuradun diren LHko ikasle eta irakasleen osoko kopurua	%	% 0,91*	% 2,41	+% 1,50

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila + Europako Batzordea + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

* Datu eguneratua Hirugarren Erradiografia honetan; bigarren Erradiografian emandako datua behin-behinekoa zen.

2021-2022 ikasturtean, **Lanbide Heziketako 1.354 ikasle eta 573 irakasle euskaldun (1.927) joan ziren atzerrira** Erasmus+ Programaren esparruan.

Europako Batzordeak 2021eko datuekin argitaratutako Erasmus+ programaren urteko azken txostenaren arabera, 2021ean Erasmus+ programan parte hartu zuten Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleen (VET, Vocational Education and Training) % **2,41 euskaldunak ziren**, EB27n dugun biztanleria-pisua oso gainetik, zeina % 0,49koa baita.

Nabarmenezkoa da nabarmen murriztu dela Erasmus+ programan parte hartu duten Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleen kopurua **Europan**: 2019ko ikasturtean 192.140 izan ziren, eta 2021eko ikasturtean, berriz, 79.962. Aldiz, parte hartu duten EAeko Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleen kopuruak gora egin du: 2019an 1.745 izatetik 2021ean 1.927 izatera igaro baita.

3.2.8.

VIII. dimentsioa: Ingurumena

M.35 ADIERAZLEA: EUSKADIKO PRODUKTU ENERGETIKOEN GUZTIZKO ESPORTAZIOETAN DUTEN PISU ERLATIBOA

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2018)	Adierazlearen balioa (2022)	2018-2022 bilakaera
Euskadiko produktu energetikoen* esportazioen balioa / Euskadiko esportazioen guztizko balioa	%	% 10,86	% 8,05	-% 2,81

Iturria: Estatuko Merkataritza Idazkaritza + EU Trade Helpdesk + ITC (International Trade Centre) + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

* Produktu energetikoa = TARIC (Erkidegoko muga-zerga integratua) muga-zergaren 27. partida soilik hartzen du barnean (Erkidegoko muga-zerga integratua).

Euskal produktu energetikoen esportazioak (muga-zergen 27. partida) euskal esportazio guztien % **8,05** izan dira 2022an, eta **produktu energetikoen munduko esportazio guztien % 0,07**.

EB27ri dagokionez, **EAeko produktu energetikoen esportazioak EB27ko produktu energetikoen esportazio guztien % 0,43 izan dira**, eta gure pisua barne-produktu gordinean, prezio korranteetan, % 0,54 da.

M.26 ADIERAZLEA: MUNDUKO BEROTEGI-EFEKTUKO GAS-EMISIOEN EUSKAL KUOTA, CO₂-AREN TONA BALIOKIDETAN NEURTUTA

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2013)	Adierazlearen balioa (2017)	Adierazlearen balioa(2021)	Bilakaera 2013-2021 2017-2021
Euskadin isuritako CO ₂ kilotona baliokideak / Munduan isuritako CO ₂ kilotona baliokideak	%	% 0,05	% 0,04	% 0,05	% 0,00 +% 0,01

Iturria: Eustat + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

Euskal Autonomia Erkidegoak, munduko barne-produktu gordinaren ia % 0,10 izanik, 17.558 kilotona CO₂ baliokide isuri zituen 2021ean, munduko ekonomian sortutako CO₂ kilotona baliokide guztien % 0,07.

2013. urtearekin alderatuta, zertxobait handitu da Euskal Autonomia Erkidegoak munduko ekonomian sortutako CO₂ kilotona baliokideen guztizkoan duen pisu erlatiboa (+% 0,01), eta berreskuratu ditu 2013ko mailak.

EB27ri dagokionez, 2021ean EB27n isuritako CO₂ kilotona baliokideen guztizkoaren % 0,68 sortu zuen Euskadik, EB27k barne-produktu gordinari egindako ekarpenaren gainetik (% 0,54).

M.27 ADIERAZLEA: EUSKAL INGURUMEN-ONDAREA NAZIOARTEKOTZEA

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2016)	Adierazlearen balioa (2018)	Adierazlearen balioa (2022)	Bilakaera 2016-2022 2018-2022
UNESCOk Euskadin deklaraturako Biosfera Erreserbak / Mundu-mailan deklaraturako Biosfera Erreserba guztiak	%	% 0,1495	% 0,1457	% 0,1337	-% 0,0158 -% 0,0120

Iturria: UNESCO + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

Euskadik munduko azaleraren % 0,01 eta EB27ko azaleraren % 0,18 hartzen du, eta UNESCOk aitortutako Biosfera Erreserben munduko naturaguneen % 0,1337 (748tik bat, Urdaibai, hain zuzen ere) eta EB27ren kasuan, berriz, % 0,55 (181tik bat, alegia).

2018az geroztik, ehun eta hirurogeita bi (162) erreserba gehiagorekin handitu da UNESCOren Biosfera Erreserben Munduko Sarea. Izendapen berri horiekin, Munduko Sarea 748 erreserba ditu orain 134 herrialdetan, mugaz harandiko 23 erreserba barne. **EAEn pisu erlatiboa zertxobait jaitsi da, bai EB27 mailan, bai mundu mailan.**

3.2.9.

IX. dimentsioa: Gizartea

S.28 ADIERAZLEA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BIZTANLE ATZERRITARRAK

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2019/1/1)	Adierazlearen balioa (2022/07)	Bilakaera 2015-2022 2019-2022
Atzerritarrak / Euskadiko biztanleak guztira	%	% 6,32	% 7,62	% 8,80	+% 2,48 +% 1,18

Iturria: Eustat + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

2022ko uztailean, **Euskadin 192.867 atzerritar bizi ziren, biztanleria osoaren % 8,8:** Euskadiko 11 pertsonatik bat atzerritarra da.

Euskadin bizi diren atzerritarrak, mundu mailan, bizi direnaz bestelako herrialde batean jaiotako pertsonen % 0,07 dira (281 milioi pertsona 2020an, *World Immigration Report 2022*, mundu osorako eskuragarri dauden 2020ko azken datuekin).

Euskadik apur bat handitu du beste herrialde batean jaiotako pertsonen kopuruari dagokionez **munduan duen pisua** (% 0,07 vs % 0,06 2019an).

S.29 ADIERAZLEA: EUSKAL INSTITUZIO ETA ERAKUNDEEK FINANTZATUTAKO NAZIOARTEKO GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO PROIEKTUETARA BIDERATUTAKO LAGUNTZA

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2018)	Adierazlearen balioa (2022)	Bilakaera 2015-2022 2018-2022
Euskal instituzio eta erakundeek finantzatutako Nazioarteko Garapenerako Lankidetzarako proiektuetara bideratutako laguntzaren zenbatekoa	Milioi eurotan	55	69,5	81,3	+26,3 +11,8

Iturria: Munduko Bankua + Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

2022an, garapenerako lankidetzarako euskal erakunde publikoek, Elankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak gidaturik, **1.189 ekimen** bultzatu zituzten **68 herrialdetan, 81,3 milioi eurotik gorako guztizko zenbatekoarekin** —mundu zabalean jasotako Laguntza Ofizial Garbiaren guztizkoaren % 0,04 izan zen—.

Hau da, 2022an, euskal herritar bakoitzak batez beste 37,2 euroko ekarpena egin zuen Nazioarteko Garapenerako Lankidetzeta Proiektuetarako, 2018an baino 5,44 euro gehiago biztanle bakoitzeko, eta 2015ean baino 11,89 euro gehiago.

S.30 ADIERAZLEA: EUSKAL GIZARTEAREN PENTSAMOLDE GLOBALA

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2016)*	Adierazlearen balioa (2019)**	Adierazlearen balioa (2020)***	Bilakaera 2016-2020 2019-2020
Inkestan oinarrituta egindako pertzepzioaren adierazlea*	Oro har izan diren gertakizunek beren bizitzan asko edo dezente eragiten dietela dioten euskaldunen ehunekoa	% 67,84 eta % 74,16 arteko tartea	% 66,35 eta % 73,65 arteko tartea	% 69,67 eta % 76,33 arteko tartea	1,83 – 2,17 3,32 – 2,68

Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza).

* 2016: 2016ko otsailean egindako inkesta. Lagina: 1.000 elkarrizketa EAE osorako, 18 urte edo gehiagoko biztanleak. Lagin-errorea: + % 3,16koa, % 95,5eko konfiantza-mailarako eta $p = q = 0,5$ izanik.

**2019: 2019ko azaroan egindako inkesta. Lagina: 750 elkarrizketa EAE osorako, 18 urte edo gehiagoko biztanleak. Lagin-errorea: + % 3,65koa, % 95,5eko konfiantza-mailarako eta $p = q = 0,5$ izanik.

*** 2020: 2020ko otsailean egindako azken inkesta. Lagina: 900 elkarrizketa EAE osorako, 18 urte edo gehiagoko biztanleak. Lagin-errorea: + 3,33koa, % 95,5eko konfiantza-mailarako eta $p = q = 0,5$ izanik. 2020ko datua % 73 da, hau da, lagin-errorearekin % 69,67 eta % 76,33 artekoa izango litzateke.

Prospekzio Soziologikoen Kabineteak (Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza) hiru datatan egindako hiru inkestetatik ondorioztatzen denez, 2020. urtearen amaieran, **EAEko herritarren % 69,67k eta % 76,33k uste dute munduan gertatutakoek asko edo dezente eragiten dietela beren bizitzari, hurrenez hurren.**

Data desberdinetan adierazle horren balioa neurtzeko erabilitako laginaren tamainaren aldea kontuan izanik, errore-marjina aldatu egiten da inkesta bakoitzean: zenbat eta biztanle gutxiago orduan eta errore-marjina handiagoa. Horregatik, bilakaera ikusi ahal izateko, batezbesteko aritmetikoaren ordez tarte bat erabiltzen da adierazle gisa, laginak ezin baitira alderatu kopuruan.

Beraz, kontuz ibili behar da datu horiek interpretatzean. Baiezta daiteke 2020an euskal gizarteko lau pertsonatik ia hiruk baieztatzen dutela maila globalean gertatutakoek asko edo dezente eragiten dietela bizitzan; **beraz, adierazle horren bilakaerak erakusten du euskal gizarteak gero eta sentsibilitate handiagoa duela munduko arazoaren eta gertaeren berri izateko eta horiei buruzko gogoeta kritikoa egiteko.**

S.31 ADIERAZLEA: GIZA GARAPENAREN INDIZEA (GGI)

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa 2014an	Adierazlearen balioa 2018an	Adierazlearen balioa 2022an	Bilakaera 2014-2022 2018-2022
Giza garapenaren oinarritzko dimentsioetan lortutako batez besteko lorpenen adierazle sintetikoa	Adierazlearen balioa (0tik 1era bitarteko eskala)	0,915	0,926	0,953	+0,038 +0,027

Iturria: Eustat + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Giza Garapenaren Indizeak (GGI) planetako garatuenen artean kokatzen du euskal gizartea, Eustatek landutako datuen arabera. Eustatek 2010etik urtero kalkulatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko GGla, Garapenerako Nazio Batuen (NBGP) estatistika-programa horren metodologia aplikatuz. (Metodologia aldatu egiten da aldian-aldian).

Giza Garapenaren Indizea (GGI) giza garapenaren funtsezko dimentsioetan (osasuna, hezkuntza eta bizi-maila) lortutako batez besteko lorpenen adierazle sintetiko bat da. GGla hiru dimentsioetako bakoitzaren indize normalizatuen batez besteko geometrikoa da.

- Osasunaren dimentsioa jaiotzako bizi-itxaropenaren adierazlearen arabera ebaluatzen da.
- Hezkuntzaren dimentsioa neurtzeko, berriz, 25 urtetik gorako helduen batez besteko eskolatzeko-urteak eta eskola-adineko haurren eskolatzeko-urteak hartzen dira kontuan.
- Bizi-mailaren dimentsioa *per capita*¹ errenta nazional gordinaren arabera neurtzen da, erosteko ahalmenaren parekotasunari dagokionez.

NBGPk argitaratutako azken txostenak (2021/22 aldikoa, 2021eko datuekin egina), **194 estatu subiranoren** arteko munduko sailkapenaren rankinga ezartzen du. **2021ean, 0,936ko adierazle-balioa lortu zuen, eta, hala, Euskal Autonomia Erkidego 14. postuan kokatzen da**, Kanadaren parean. Aurretik ditu Suitza, Norvegia, Islandia, Hong Kong, Australia, Danimarka, Suedia, Irlanda, Alemania, Herbehereak, Finlandia, Singapur, Belgika eta Zeelanda Berria. Espainia 279. postuan dago NBGPren txostenean, 0,905eko GGlarekin. Sailkapena Hego Sudanek ixten du 0,385ekin.

NBGPk Giza Garapenaren Indizea egin duen 32 urteetan, lehenbizikoz geratu da agerian ongizateak bi urtez jarraian egin duela atzera munduan, COVID-19aren pandemiak bultzatuta. Giza Garapenak 2016ko mailetara egin du atzera, eta aurrerapen gehienak Garapen Jasangarriko Helburuak lortzera bideratu ditu.

Atzerakada ia unibertsala da; izan ere, herrialdeen % 90ean baino gehiagotan kaskartu egin dira GGla mailak 2020an edo 2021ean, eta % 40k baino gehiagok bietan. Horrek erakusten du krisiak okerrera egiten jarraitzen duela herrialde askotan.

Joera berari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko GGla atzera egin zuen 2020an, 2019ko 0,938 baliotik 0,930 baliora. Beherakada horren arrazoia bizi-itxaropenaren jaitsiera izan zen (83,9 urte 2019an eta 83,1 urte 2020an), baita per capita errenta gordinarena ere, AEBko dolarretan neurtuta (2017an), 2019ko 57.438tik 2020ko 51.954ra jaitsi baitzen. Alderdi positibo gisa, nabarmendu behar da ez zela atzerapausorik izan hezkuntza-adierazleetan.

Aitzitik, 2021ean 0,936 balioraino hobetu da, 83,7 urterainoko bizi-itxaropenaren susperraldiari eta per capita errenta gordinaren igoerari esker (54.791 USD), nahiz eta pandemia aurreko urteko 2019ko balioetara iritsi ez.

¹ Errenta nazional gordina (merkatuko prezioan) barne-produktu gordina da, gehi unitate instituzional egoiliarrek unitate instituzional ez-egoiliarrei ordaindu beharreko errenta primarioak, gehi unitate instituzional egoiliarrek (Eustat) kobratu beharreko munduko gainerako errenta primarioak.

S.36 ADIERAZLEA: EUSKO LEGBILTZARREKO EMAKUMEEN KOPURUA

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2018)	Adierazlearen balioa (2022)	2018-2022 bilakaera
Estatuetako parlamentuetan emakumeek okupaturako eserlekuen proportzioa (%)	%	% 53,3	% 50,7	-% 2,63

Iturria: legebiltzarra.eus + Munduko Bankua + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

2022an, Eusko Legebiltzarra parekidea da osaerari dagokionez, **emakumeak dira % 50,7, munduko eta EB27ko** batezbestekoa baino askoz partaidetza handiagoa (**% 26,5 eta % 32,6**, hurrenez hurren).

Euskadi laugarren postuan dago Munduko Bankuak ebaluatutako 199 herrialdeen rankingean, Ruanda (% 61,25), Kuba (% 53,4) eta Nikaraguaren (% 51,6) atzetik.

EB27n, Suedia eta Finlandia dira parlamentuetan emakumeen parte-hartze handiena duten herrialdeak, % 46,4 eta % 45,5, hurrenez hurren.

3.2.10.

X. dimentsioa: Gobernu, Ekonomia eta Gizarte Digitala

G.37 ADIERAZLEA: EKONOMIA ETA GIZARTE DIGITALEN INDIZEA (DESI)²

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2018)	Adierazlearen balioa (2022)	2018-2022 bilakaera
Euskadiren digitalizazio-maila DESI indizearen arabera (100etik)	%	% 63	% 82	+% 19

Iturria: Europako Batzordea + Eustat + Telefónica Fundazioa + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak (www.fundaciontelefonica.com/cultura-digital/sociedad-de-la-informacion/sociedad-de-la-informacion-2022).

Nazioartean egiten den adierazle konposatu horren arabera —alabaina, ez da egiten mundu osorako, eta egiteko metodologia urtez urte aldatzen da—, **euskal gizartearen eta ekonomiaren digitalizazioa EB28ko bosgarren lekuan kokatu zen 2018an, % 62,99ko** balioarekin; hau da, nabarmen handiagoa **EB28ko** batezbestekoa baino (**% 53,98**).

EB28 ez diren eta DESI metodologiaren arabera ebaluatu diren **hamazazpi herrialdeen batezbestekoa % 54,8** zen (Australia, Brasil, Kanada, Txile, Txina, Hego Korea, Estatu Batuak, Islandia, Israel,

² DESI: DESI edo Ekonomia eta Gizarte Digitalen Indizea (Digital Economy and Society Index) lurralde jakin baten digitalizazio maila neurtzea ahalbidetzen duen indize bat da. 34 adierazle ditu, 5 dimentsiotan sailkatuta: konektibitatea, giza kapitala, Interneteko zerbitzuen erabilera, teknologiaren integrazioa eta zerbitzu publiko digitalak. Dimentsioen eta adierazleen artean badago beste maila bat, hots, azpidimentsioen maila. Adierazlearen balio absolututik abiatuta, azkeneko DESI adierazlea lortzea ahalbidetzen duten normalizazio-prozesu eta haztapen batzuk gauzatzen dira.

Japonia, Mexiko, Norvegia, Zeelanda Berria, Errusia, Serbia, Suitza, Turkia), EB27ko digitalizazio maila baino % 0,82 handiagoa, baina Euskadikoa baino % 8,19 txikiagoa.

2014tik 2022ra (2021eko datuekin), Ekonomia eta Gizarte Digitalen Indizeak (DESI) Europako errendimendu digitalari buruzko adierazleak laburbildu zituen, eta EBko herrialdeen aurrerabidearen jarraipena egin zuen.

2023tik aurrera, III. Nazioartekotze Erradiografia hau ixten den unean, eta 2030eko Hamarkada Digitalerako Politika Programarekin bat etorritik, DESI hamarkada digitalaren egoerari buruzko urteko txostenetan sartuko da, eta helburu digitaletarako aurrerapena gainbegiratzeko erabiliko da.

Kontuan izanik DESIren aldaketa metodologikoak, Eustaten aurrerapen metodologikoak eta eskuragarri dauden datuak, eta Telefónica Fundazioak eginiko *GIZARTE DIGITALA AUTONOMIA-ERKIDEGOETAN 2021*. Euskadi txostena, bost dimentsioen neurketan (konektibitatea, giza kapitala, Interneten erabilera, teknologia digitalaren integrazioa eta zerbitzu publiko digitalak), kalkulatu da DESI adierazleak 100etik 82 puntu dituela 2022an Euskadin.

COVID-19aren pandemian, Euskal Autonomia Erkidegoa digitalizatzeko ahaleginetan aurrera egiten ari da, eta inbertitzen jarraitzen du gaitasun digitalak hobetzeko, enpresa txiki eta ertainen eraldaketa digitalerako eta 5G sare aurreratuen hedapenerako.

G.38 ADIERAZLEA: GOBERNU KALITATEAREN EUROPAKO INDIZEA ("EQI")

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2017)	Adierazlearen balioa (2021)	2017-2021 bilakaera
Gobernu Kalitatearen Europako Indizea	Indizea	0,6520	0,969	+0,3170

Iturria: QoG EQI Data + MKM Internacional etxeak prestatutako datuak.

Gobernu Kalitatearen Europako Indizea (EQI) da **kalitate instituzionalari** buruz Europar Batasunean eskualde mailan dagoen adierazle bakarra, kontuan hartuta kalitate instituzionala dimentsio ugari-ko kontzeptu bat dela, alegia: zerbitzu publikoak inpartzialtasun eta kalitate handiz ematea eta ustelkeria maila txikia izatea. EQIren helburua da herritar arruntek ustelkeriaren inguruan dituzten pertzepzioak eta esperientziak ezagutzea, eta jakitea noraino kontsideratzen duten euren eskualdeko zerbitzu publikoak inpartzialak eta kalitate onekoak direla.

2021eko datuekin argitaratutako azken txostenak **208 eskualderen** arteko sailkapen-rankinga ezartzen du Europarako (2017an baino 15 eskualde gehiago). **2021ean, adierazleak 0,969ko balioa izan zuen, eta Euskal Autonomia Erkidegoa 48. postuan dago rankingean** (2017an, berriz, 66. postuan).

EUSKADIREN PRESEN-
TZIA GLOBALAREN
ADIERAZLE MAPAREN
BILAKAERAK IZANIKO
LABURPENA:

Lehen, Bigarren eta
Hirugarren Erradiografiak



Dimentsioa	Zk.	Adierazlea	Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Euskadi-ko balioa 1. Erradiografia	Euskadi-ko balioa 2. Erradiografia	Euskadi-ko balioa 3. Erradiografia	Bilakaera 3. vs 1. Erradiografia 3. vs 2. Erradiografia
I. INSTITUZIO-NALA	I.5	Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak kontsularra	Euskal Autonomia Erkidegoko kontsulatu-kopurua	Kontsulatu-kopurua	43	50	50	+7 0
	I.6	Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuaren presentzia instituzionala munduan	Eusko Jaurlaritzaren kanpoko ordezkariak kopurua + BTI bulego kopurua + Kanpoko aholkulariaren lankidetzak-akordio egonkorren kopurua	Kop.	75	82	96	+21 +14
	I.7.a	Eusko Jaurlaritzak sinatutako nazioarteko akordioak	Eusko Jaurlaritzak sinatutako nazioarteko akordioak kopurua	Akordio-kopurua	453	471	799	+346 +328
	I.7.b	Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea duten Nazioarteko Sareak	Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea duten Nazioarteko Sareen kopurua	Sare-kopurua	75	122	147	+69 +25
	I.8	Munduko Euskal Etxeen sarea	Euskal Etxeen zentro kopurua munduan	Euskal Etxeen kopurua	190	193	196	+6 +3

4. Euskadiren Presentzia Globalaren Adierazle Maparen Bilakaerak Izaniko Laburpena: Lehen, Bigarren eta Hirugarren Erradiografia

Dimentsioa	Zk.	Adierazlea	Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Euskadiko balioa 1. Erradiografia	Euskadiko balioa 2. Erradiografia	Euskadiko balioa 3. Erradiografia	Bilakaera 3. vs 1. Erradiografia 3. vs 2. Erradiografia
II. EKONOMIA ETA INDUSTRIA	E.9	Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen esportatzeko joera	Ondasunen esportazioak / Euskadiko BPGd	%	% 31,95	% 33,18	% 38,29	+% 6,34 +% 5,11
	E.10	Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen esportazioen pisu erlatiboa ondasunen munduko esportazioetan	Euskadiko ondasunen esportazioak / Munduko ondasunen esportazioak	%	% 0,1492	% 0,1556	% 0,1113	-% 0,0379 -% 0,0443
	E.11	Euskadin egindako atzerriko inbertsio zuzenaren (AIZ) balioa	Euskadin aldi jakin batean egindako AIZren stock-balioa	Milioi eurotan	3.385,79	10.962,17	3.166,10 5.571,35 (8737,48)	+5351,69 -2224,47
	E.12	Euskal enpresen kanpoko ezarpenak	Euskal enpresen kanpoko ezarpenen kopurua	Kop.	1.688	1867	2.570	+882 +703
	E.32	Jatorri-deitura babestuak	Europar Batasunean erregistratutako Jatorri Deitura Babestuak (JDB)	JDB kopurua	-	4	5	- +1
	E.33	Eusko Jaurlaritzak inbertitzaile atzerriarrentzat jaulkitako Euskadiko Bonu Jasangarrien erakargarritasuna haien jaulkitze-egunean	Bono jasangarriak (jaulkipenen stocka) erosten dituzten inbertitzaile atzerriarrentzat	Herrialde-kopurua	-	13	16	- +3

Dimentsioa	Zk.	Adierazlea	Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Euskadiko balioa 1. Erradiografia	Euskadiko balioa 2. Erradiografia	Euskadiko balioa 3. Erradiografia	Bilakaera 3. vs 1. Erradiografia 3. vs 2. Erradiografia
III. KULTURA ETA EUSKARA	CE.13	Munduko euskal ondarea	UNESCOk Munduko Ondare deklaraturako euskal elementuen kopurua / Mundu zabaletan aitortzen diren elementuen kopurua	%	% 0,3	% 0,27	0,26 (2021)	-% 0,04 -% 0,01
	CE.14	Euskadiko kultura-industriek guztizko esportazioetan duten pisu erlatiboa	Euskadiko kultura-industriek esportazioen balioa / Euskadiko esportazioen guztizko balioa	%	% 0,1532	% 0,1474	% 0,1113	-% 0,0419 -% 0,0361
	CE.15	Euskal kirolari olinpikoak	Udako Olinpiar Jokoen azken 4 edizioetan parte hartu duten euskaldunak	Pertsonakopurua	101	122	156	+55 +34
	CE.16	Euskararen erabilera ingurune digitalean	.eus domeinua duten web orri aktiboen kopurua vs munduan aktibo dauden web orrien kopurua	%	% 0,0028	% 0,0053	% 0,0072	+0,0044 +0,0019
	CE.17	Euskarako eta euskal kulturako katedra- eta lektoretza-sarea munduan	Euskarako eta euskal kulturako katedra- eta lektoretza-kopurua munduan	Kop.	41	44	47	+6 +3

4. Euskadiren Presentzia Globalaren Adierazle Maparen Bilakaerak Izaniko Laburpena: Lehen, Bigarren eta Hirugarren Erradiografia

Dimentsioa	Zk.	Adierazlea	Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Euskadiko balioa 1. Erradiografia	Euskadiko balioa 2. Erradiografia	Euskadiko balioa 3. Erradiografia	Bilakaera 3. vs 1. Erradiografia 3. vs 2. Erradiografia
IV. TURISMOA	T.18	Euskal Autonomia Erkidegoaren turismo-gastua munduko gainerrakoarekin	Turismo hartzaileak eta turismo igorleak sortutako gastua	Milioi eurotan	6.136	7.220	7.746	+1.610 +526
	T.19	Turistak Euskadira etortzea	Euskadi bisitatu zuten turisten kopurua	Milioika pertsona	3	3,3	3,34	+0,34 +0,04
	T.20	Euskal gastronomia, Michelin izarrak	Euskal jatetxeetako Michelin izarren kopurua	Michelin izar-kopurua	29	31	34	+5 +3
V. GARRAIOA	TR.21	Pertsonen nazioarteko aireko garraioa Euskadin	Nazioarteko helmuga edo jatorria duten euskal aireportuetako aireko garraioaren bidaiari kopura / Euskal aireportuetako aireko bidaiariak guztira	%	% 37,83	% 40,78	% 33,02	-% 4,81 -% 7,76
	TR.22	Salgaien nazioarteko itsas garraioa Euskadin	Euskadin esportazioetan itsasoz garraiatutako tonak + inportazioetan itsasoz garraiatutako tonak / Eskala globalean itsasoz garraiatutako tonak guztira	%	% 0,34	% 0,35	% 0,29	-% 0,05 -% 0,06

Dimentsioa	Zk.	Adierazlea	Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Euskadiko balioa 1. Erradiografia	Euskadiko balioa 2. Erradiografia	Euskadiko balioa 3. Erradiografia	Bilakaera 3. vs 1. Erradiografia 3. vs 2. Erradiografia
VI. ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA	CT.23	PCT nazioarteko patenteen eskaerak	PCT nazioarteko patenteen eskaerak / BPGaren mila milioi (EAP eurotan)	Patente-eskaeren kopurua / BPGaren mila milioi	1,48	2,56	1,68	-0,20 -0,88
	CT.24	Euskadiko erdi-eta goi-teknologiako produktuen esportazioa	Euskadiko erdi-eta goi-teknologiako produktuen esportazioa / Produktuen esportazio guztiak	%	% 51,90	% 52,92	% 51,68	-% 0,22 -% 1,24
VII. HEZKUNTZA	ED.25	Erasmus programaren onuradun diren unibertsitate-irakaskuntzetako euskal ikasleen nazioarteko mugikortasuna	Erasmus programaren esparruan atzerrira ikastera joaten diren euskal ikasleen kopurua (unibertsitatekoak) / Erasmus nazioarteko mugikortasun-programaren onuradun diren ikasleen guztizko kopurua	%	% 0,34	% 0,40	% 0,75	+% 0,06 +% 0,35
	ED.34	Erasmus programaren onuradun diren lanbide heziketako euskal ikasleen nazioarteko mugikortasuna	Erasmus LH programaren esparruan nazioarteko zentroetara ikastera joaten diren Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleen kopurua / Erasmus nazioarteko mugikortasun programaren onuradun diren LHko ikasle eta irakasleen osoko kopurua	%	-	% 0,91	% 2,41	- +1,5

4. Euskadiren Presentzia Globalaren Adierazle Maparen Bilakaerak Izaniko Laburpena: Lehen, Bigarren eta Hirugarren Erradiografia

Dimentsioa	Zk.	Adierazlea	Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Euskadiko balioa 1. Erradiografia	Euskadiko balioa 2. Erradiografia	Euskadiko balioa 3. Erradiografia	Bilakaera 3. vs 1. Erradiografia 3. vs 2. Erradiografia
VIII. INGURUMENA	M.35	Euskadiko produktu energetikoen esportazioek guztizko esportazioetan duten pisu erlatiboa	Euskadiko produktu energetikoen esportazioen balioa / Euskadiko esportazioen guztizko balioa	%	-	% 10,86	% 8,05	- -% 2,81
	M.26	Munduko CO ₂ emisioen euskal kuota	Euskadin isuritako CO ₂ kilotona baliokideak / Mundu-mailan isuritako CO ₂ kilotona baliokideak	%	% 0,05	% 0,04	% 0,05 (2021)	0 +% 0,01
	M.27	Euskal ingurumen-ondarea nazioartekotzea	UNESCOk Euskadin deklaratutako Biosfera Erreserbak / Mundu-mailan deklaratutako Biosfera Erreserba guztiak	%	% 0,1495	% 0,1457	% 0,1337	-% 0,0158 -% 0,012

Dimentsioa	Zk.	Adierazlea	Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Euskadiko balioa 1. Erradiografia	Euskadiko balioa 2. Erradiografia	Euskadiko balioa 3. Erradiografia	Bilakaera 3. vs 1. Erradiografia 3. vs 2. Erradiografia
IX. GIZARTEA	S.28	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle atzerri-tarrak	Biztanle atzerri-tarrak / Euskadiko biztanle guztiak	%	% 6,32	% 7,62	% 8,80	+% 2,48 +% 1,18
	S.29	Euskal instituzio eta erakundeek finantzatutako Nazioarteko Garapenerako Lankidetzarako proiektuetara bideratutako laguntza	Euskal instituzio eta erakundeek finantzatutako Nazioarteko Garapenerako Lankidetzarako proiektuetara bideratutako laguntzaren zenbatekoa	Milioi eurotan	55	69,5	81,3	+26,3 +11,8
	S.30	Euskal gizartearen pentsamolde globala	Inkestan oinarrituta egindako pertzepzioaren adierazlea	Oro har izan diren gerta-kizunek beren bizitzan asko edo dezente eragiten dietela dioten euskaldunen ehunekoa	% 67,84 eta % 74,16 arteko tartea	% 66,35 eta % 73,65 arteko tartea	% 69,67 - % 76,33 (2020)	1,83-2,17 3,32-2,68
	S.31	Giza Garapenaren Indizea (GGI)	Giza garapenaren funtsezko dimentsioetan erdietsitako batez besteko lorpenen adierazle sintetikoa: jaiotzako bizi-itxaropena, hezkuntza eta bizi-maila	Adierazlearen balioa (0 eta 1 artean)	0,915	0,926	0,953	+0,038 +0,027
	S.36	Eusko Legebiltzarreko emakumeen kopurua	Estatueta parlamentuetan emakumeek okupatutako eserlekuen proportzioa (%)	%	-	% 53,3	% 50,7	- -% 2,63

4. Euskadiren Presentzia Globalaren Adierazle Maparen Bilakaerak Izaniko Laburpena: Lehen, Bigarren eta Hirugarren Erradiografia

Dimentsioa	Zk.	Adierazlea	Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Euskadi-ko balioa 1. Erradiografia	Euskadi-ko balioa 2. Erradiografia	Euskadi-ko balioa 3. Erradiografia	Bilakaera 3. vs 1. Erradiografia 3. vs 2. Erradiografia
X. GOBERNUA, EKONOMIA ETA GIZARTE DIGITALA	G.37	Ekonomia eta Gizarte Digitalen Indizea (DESI)	100eko %	Indizea	-	% 63	% 82	- % 19
	G.38	Gobernu Kalitatearen Europako Indizea		Indizea	-	0,6520	0,969	- +0,3170

EUSKADIREN 2022KO
PRESENTZIA GLOBALAREN
ADIERAZLE
MAPAREN LABURPENA:
Hirugarren erradiografiaren
munduko konparaketa



Dimentsioa	Zk.	Adierazlea	Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Euskadi-ko balioa 3. Erradiografia	Munduko konparaketa
I. INSTITUZIONALA	I.5	Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari-tza kontsularra	Euskal Autonomia Erkidegoko kontsulatu-kopurua	Kontsulatu-kopurua	50	Munduko biztanleriaren % 18,71 eta munduko produktu gordinaren % 25,49
	I.6	Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuaren presentzia instituzionala munduan	Eusko Jaurlaritzaren kanpoko ordezkari-tza kopurua + BTI bulego kopurua + Kanpoko aholkulariaren lankidetzak-akordio egonkorren kopurua	Kop.	96	Munduko 96 herrialde-tan dago —eta munduko produktu gordina-ren % 94,18 batzen dute herrialde horiek—
	I.7.a	Eusko Jaurlaritzak sinatutako nazioarte-ko akordioak	Eusko Jaurlaritzak sinatutako nazioarte-ko akordioen kopurua	Akordio-kopurua	799	66 herrialderekin sinatu-tako aldebiko akordioak —munduko BPGaren % 87,13 osatzen dute herrialde horiek—
	I.7.b	Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea duten Nazioarte-ko Sareak	Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea duten Nazioarte-ko Sareen kopurua	Sare-kopurua	147	94 sare Europakoak dira, eta 53, berriz, mundu osokoak
	I.8	Munduko Euskal Etxeen sarea	Euskal Etxeen zentro kopurua munduan	Euskal Etxeen kopurua	196	Adierazle hori ezin da alderatu munduko da-tuekin

Dimentsioa	Zk.	Adierazlea	Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Euskadiko balioa 3. Erradiografia	Munduko konparaketa
II. EKONOMIA ETA INDUSTRIA	E.9	Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen esportatzeko joera	Ondasunen esportazioak / Euskadiko BPGd	%	38,29	Munduko batezbestekoa baino ehuneko 13,94 puntu handiagoa
	E.10	Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen esportazioen pisu erlatiboa ondasunen munduko esportazioetan	Euskadiko ondasunen esportazioak/Munduko ondasunen esportazioak	%	0,1113	Munduan esportazio-jardueraren bidez sortutako 898 eurotik bat Euskadin sortzen zen
	E.11	Euskadin egindako atzerriko inbertsio zuzenaren (AIZ) balioa	Euskadin aldi jakin batean egindako AIZren stock-balioa	Miloi eurotan	3.166,10 5.571,35 (8.737,48)	Munduko AIZ osoaren % 0,14
	E.12	Euskal enpresen kanpoko ezarpenak	Euskal enpresen kanpoko ezarpenen kopurua	Kop.	2.570	99 herrialdetan daude, eta munduko produktu gordinaren % 94,67 osatzen dute herrialde horiek
	E.32	Jatorri-deitura babestuak	Europar Batasunean erregistratutako Jatorri Deitura Babestuak (JDB)	JDB kopurua	5	EBn erregistratutako JDB guztien % 0,03 60 herrialdetakoak
	E.33	Eusko Jaurlaritzak inbertitzaile atzerriarrentzat jaulkitako Euskadiko Bonu Jasangarrien erakar-garritasuna haien jaulkitze-egunean	Bono jasangarriak (jaulkipenen stocka) erosten dituzten inbertitzaile atzerriarrak	Herrialde-kopurua	14	14 herrialdetatik etorritako atzerriko inbertitzaileak

Dimentsioa	Zk.	Adierazlea	Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Euskadiko balioa 3. Erradiografia	Munduko konparaketa
III. KULTURA ETA EUSKARA	CE.13	Munduko euskal ondarea	UNESCOk Munduko Ondare deklaraturako euskal elementuen kopurua / Mundu zabalean aitortzen hori daukaten elementuen kopurua	%	0,26	UNESCOk Munduko Ondarea kategorian aitortutako 1.154 elementuetatik hiru ditu Euskadik
	CE.14	Euskadiko kultura-industriek guztizko esportazioetan duten pisu erlatiboa	Euskadiko kultura-industriaren esportazioen balioa / Euskadiko esportazioen guztizko balioa	%	0,1113	Kultura-industrietako ondasunen munduko esportazio guztien % 0,03
	CE.15	Euskal kirolari olinpikoak	Udako Olinpiar Jokoen azken 4 edizioetan parte hartu duten euskaldunak	Pertsonakopurua	156	Udako Olinpiar Jokoen azken lau edizioetan parte hartu duten atleten % 0,23
	CE.16	Euskararen erabilera ingurune digitalean	.eus domeinua duten web orri aktiboen kopurua vs munduan aktibo dauden web orrien kopurua	%	0,0072	.eus domeinua duten 14.265 web orri aktibo. vs 198,9 milioi mundu zabalean
	CE.17	Euskarako eta euskal kulturako katedra- eta lektoretza-sarea munduan	Euskarako eta euskal kulturako katedra- eta lektoretza-kopurua munduan	Kop.	47	Adierazle hori ezin da alderatu munduko datuekin
IV. TURISMOA	T.18	Euskal Autonomia Erkidegoaren turismo-gastua munduko gainerakoarekin	Turismo hartzaileak eta turismo igorleak sortutako gastua	Milioi eurotan	7.746	Nazioarteko turismoaren munduko gastuaren % 0,59
	T.19	Turistak Euskadira etortzea	Euskadi bisitatu zuten turisten kopurua	Milioika pertsona	3,34	Mundu osoko turisten % 0,35
	T.20	Euskal gastronomia, Michelin izarrak	Euskal jatetxeetako Michelin izarren kopurua	Michelin izar-kopurua	34	Michelin izarren bigarren kontzentrazioarik handiena km ² bakoitzeko, Monakoren atzetik

Dimentsioa	Zk.	Adierazlea	Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Euskadiko balioa 3. Erradiografia	Munduko konparaketa
V. GARRAIOA	TR.21	Pertsonen nazioarteko aireko garraioa Euskadin	Nazioarteko helmuga edo jatorria duten euskal aireportuetako aireko garraioaren bidaiari kopura / Euskal aireportuetako aireko bidaiariak guztira	%	33,02	Munduan aire bidez garraiatutako bidaiari guztien % 0,15
	TR.22	Salgaien nazioarteko itsas garraioa Euskadin	Euskadin esportazioetan itsasoz garraiatutako tonak + inportazioetan itsasoz garraiatutako tonak / Eskala globalean itsasoz garraiatutako tonak guztira	%	0,29	Itsasoz maila globalean garraiatutako salgaien % 0,29
VI. ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA	CT.23	PCT nazioarteko patenteen eskaerak	PCT nazioarteko patenteen eskaerak/BPGaren mila milioi (EAP eurotan)	Patente-eskaeren kopurua/BPGaren mila milioi	1,68	Kategoria honetako munduko patenteen eskaeren % 0,05
	CT.24	Euskadiko erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioa	Euskadiko erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioa / produktuen esportazio guztiak	%	51,68	Oro har, mota horretako produktuak munduko esportazioen % 42,55 dira
VII. HEZKUNTZA	ED.25	Erasmus programaren onuradun diren unibertsitate-irakaskuntzetako euskal ikasleen nazioarteko mugikortasuna	Erasmus programaren esparruan atzerrira ikastera joaten diren euskal ikasleen kopurua (unibertsitatekoak) / Erasmus nazioarteko mugikortasun-programaren onuradun diren ikasleen guztizko kopurua	%	0,75	Truke-programa honetan parte hartzen duten ikasle europarren % 0,75
	ED.34	Erasmus programaren onuradun diren lanbide heziketako euskal ikasleen nazioarteko mugikortasuna	Erasmus LH programaren esparruan nazioarteko zentroetara ikastera joaten diren Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleen kopurua / Erasmus nazioarteko mugikortasun programaren onuradun diren LHko ikasle eta irakasleen osoko kopurua	%	2,41	Truke-programa honetan parte hartzen duten ikasle europarren % 2,41

Dimentsioa	Zk.	Adierazlea	Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Euskadiko balioa 3. Erradiografia	Munduko konparaketa
VIII. ENERGIA ETA INGURUMENA	M.35	Euskadiko produktu energetikoen esportazioek guztizko esportazioetan duten pisu erlatiboa	Euskadiko produktu energetikoen esportazioen balioa / Euskadiko esportazioen guztizko balioa	%	8,05	Produktu energetikoen munduko esportazio guztien % 0,07
	M.26	Munduko CO ₂ emisioen euskal kuota	Euskadin isuritako CO ₂ kilotona baliokideak / Mundu-mailan isuritako CO ₂ kilotona baliokideak	%	0,05	Munduko ekonomian sorturiko CO ₂ kilotona baliokide guztien % 0,07
	M.27	Euskal ingurumen-ondarea nazioartekotzea	UNESCOk Euskadin deklaraturako Biosfera Erreserbak / Mundu-mailan deklaraturako Biosfera Erreserba guztiak	%	0,1337	UNESCOk Biosfera Erreserba gisa izendatuta dauzkan munduko 748 naturaguneetako bat

Dimentsioa	Zk.	Adierazlea	Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Euskadi-ko balioa 3. Erradiografia	Munduko konparaketa
IX. GIZARTEA	S.28	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle atzerritarrak	Biztanle atzerritarrak / Euskadiko biztanle guztiak	%	8,80	Mundu mailan, bizi diren herrialdeaz bestelako batean jaiotako pertsonen % 0,07
	S.29	Nazioarteko Garapenerako Lankidetzako Proiektuetarako laguntza euskal erakunde eta organismoak	Euskal instituzio eta erakundeek finantzatutako Nazioarteko Garapenerako Lankidetzarako proiektuetara bideratutako laguntzaren zenbatekoa	Miloi eurotan	81,3	Mundu zabalean jasotako laguntza ofizial garbiaren guztizkoaren % 0,04
	S.30	Euskal gizartearen pentsamolde globala	Inkestan oinarrituta egindako pertzepzioaren adierazlea	Oro har izan diren gerta-kizunek beren bizitzan asko edo dezente eragiten dietela dioten euskaldunen ehunekoa	69,67-76,33	Adierazle hori ezin da alderatu munduko datuekin
	S.31	Giza Garapenaren Indizea (GGI)	Giza garapenaren funtsezko dimentsioetan erdietsitako batez besteko lorpenen adierazle sintetikoa: jaiotzako bizi-itxaropena, hezkuntza eta bizi-maila	Adierazlearen balioa (0 eta 1 artean)	0,953	Euskadi munduko hamalagarren postuan dago
	S.36	Eusko Legebiltzarreko emakumeen kopurua	Estatuetako parlamentuetan emakumeek okupatutako eserlekuen proportzioa (%)	%	50,7	Euskadi laugarren postuan dago Munduko Bankuak ebaluatutako 199 herrialdeen rankingean, parlamentuetako emakumeen ehunekoari dagokionez

Dimentsioa	Zk.	Adierazlea	Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Euskadi-ko balioa 3. Erradiografia	Munduko konparaketa
X. GOBERNUA, EKONOMIA ETA GIZARTE DIGITALA	G.37	Ekonomia eta Gizarte Digitalen Indizea (DESI)	Euskadiren digitalizazio-maila DESI indizearen arabera (100etik)	%	82	EB27koa baino ehuneko 29 puntu handiagoa
	G.38	Gobernu Kalitatearen Europako Indizea	(Gobernu Kalitatearen Europako Indizea)	Indizea	0,969	Europako 208 eskualderen artean, Euskadi 48. posizioan dago

